# DORIAN GRAYren ERRETRATUA

## Oscar Wilde

## Hegoaldeko Goi-nafarrera
### (Izarbeibarko aldaera)

Itzultzallea:
Aitor Arana

**Ayuntamiento de Puente La Reina**
**Garesko Udala**

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

ERROTETA

© Aitor Arana
© Erroteta Argitaletxea

ISBN: 978-84-17607-70-8
Legezko gordailua: BI 00636-2023

Diseinatzaile eta argitaratzailea: Joseba Berriotxoa www.erroteta.com

Inprimatzailea:

Euskal Herrian inprimatua

# DORIAN GRAYren ERRETRATUA

**Oscar Wilde**

## Hegoaldeko Goi-nafarrera
**(Izarbeibarko aldaera)**

Itzultzallea:
Aitor Arana

ERROTETA

# SARTZEA

Artista gauza ederren sortzallea da.

Artea erakustea eta artista ezkutatzea artearen helburua da.

Kritikaria, bertze modu batean edo bertze material batera, gauza ederres duen inpresioa alda zaken[1] hura da.

Kritika modurik gorena, harla nola apalena, autobiografia modu bat da.

Gauza ederretan erranahi itxusiak arkitzen tuztenak ustelak dire xarmagarriak izan gabe. Hori akatsa da.

Gauza ederretan erranahi ederrak arkitzen tuztenak landuak dire. Horiendako bada esperantzarik.

Hautatuek soilik uste dute gauza ederrek Edertasuna soilik erran nahi dutela.

Ez dago liburu moralik edo ez-moralik. Liburuak ongi idatzirik daude, edo gaizki idatzirik. Hori da guzia.

XIX. mendeak Errealismoari dion nazka Kalibanen hasarrea da, bere aurpegia ispiluan ikusirik.

XIX. mendeak Erromantizismoari dion nazka Kalibanen hasarrea da, bere aurpegia ispiluan ikusi gabe.

Gizonaren bizitze morala artistaren gaietako bat da, baña artearen moraltasuna baliabide ez-perfektuaren erabilera perfektuan dago.

Iongo artistak ez du deus frogatu nahi. Egia diren gauzak ere froga daizke.

Iongo artistak ez du sinpatia etikorik. Sinpatia etikoa artistarengan estilo-itxurakeria barkaezina da.

Iongo artista ez da ioiz morbosoa. Artistak guzia adieraz zake.

Pensamentua eta hizkuntza artearen langaiak dire artistarendako.

Bizioa eta birtutea artearen materialak dire artistarendako.

Formaren ikuspegitik, guzien arte eredua musikariaren artea da. Sentimentuaren ikuspegitik, aktorearen lanbidea eredua da.

Arte guzia aldi berean da forma eta sinboloa.

Formatik hararago[2] doazenek beren perilpean[3] egiten dute.

Sinboloak irakurtzen tuztenek beren perilpean egiten dute.

Ikuslea da, eta ez bizitzea, arteak benetan islatzen duena.

Artelan baten gañeko eritzi ugaritasunak lan hori berria, konplexua eta bizia dela erakusten du.

Kritikariak ados ez daudelarik, artista ados dago bere buruareki.

Barka zakegu norbaitek gauza erabilgarri bat egitea, miresten ez badu. Gauza alperrikako bat egiteko aitzakia bakarra hura biziki mirestea da.

Arte guzia aski alperrikakoa da.

Oscar Wilde

# LEHENBISKO KAPITULUA

Lankanbra[4] arrosa-urrines beterik zego, eta udako haizea lorategiko zugatzen[5] artetik pasatzean, ate zabaletik loreen urrina sartzen ze.

Lord Henry Wotton besaulki batean xarririk zego, zigarro bat erretzen, beti bejala. Kea sabaira igaten ikusten ari ze. Atetik Londresko karriketako zaragata urrutikoa sartzen ze. Kanbraren erdian gizon gazte eta guzis eder baten erretratua zego. Txutirik[6], harren aitzinean eta hurbil, artista bera zego, Basil Hallward. Margolariak erretratuari begiratzen zion bitartean, irribarre egin zue pozik.

–Zure lanik hoberena da, Basil; ioiz in duzun hoberena –erran zio Lord Henryk, poliki–. Egias, datorren urtean Grosvenor galerian erakutsi behar duzu. Grosvenor horlako lanak erakusteko gisako leku bakarra da.

–Ez dut uste iora bialduko dutenik[7] –errespondatu zue margolariak, burua modu bitxian mogitzeareki batio; mogimentu hura zela eta, Oxfordeko Unibertsitateko lagunek anisetan[8] barre egin ziote–. Ez, ez dut iora bialdu nahi.

Lord Henryk harriturik begiratu zio bere zigarroaren ke artetik.

–Ez duzula erretratua bialdu nahi? Ene lagun maitea, zergatik ez? Bai arraroak zaratela pintoreak!

–Badakit nitas barre inen duzula –Hallwarden errespondatzea–, baña egias ezin dut ikusgai xarri. Naure baitako gehiegi xarri dut berean.[9]

Lord Henryk nagiak atra zitue besaulkian eta barre egin zue.

–Zaure baitako gehiegi xarri duzula! Basil, gizon hau egias da ederra. Ez du zure itxurarik.

–Ez duzu entendatzen, Harry –errespondatu zio artistak–. Xakinik da ez naizela hura bejalakoa. Sentituko nuke harren antzekoa banitz. Hoberena da bertzeak bejalakoa izatea. Tutuluek[10] eta itxusiek mundu hontako hoberena dokete. Dorian Gray...

–Dorian Gray? Horla daitzo harri[11]? –galdegin zue Lord Henryk, Basil Hallward zegon aldera ibiltzeareki batio.

–Bai, horlaxe daitzo. Ez nue zuri errateko asmorik.

–Baña, zengatik ez?

–Bada, ezinen nuke azaldu. Pertsona xakin batzuk laizki agratzen[12] zaizkidanean, ez diot iori haien izenik erraten. Horrek zentzurik ez duela pensatuko duzu, ezta?

–Xakina bada ezetz –Lord Henryren errespondatzea–, ene Basil maitea. Ezkonduik nagola atzeten zaizu[13] eta nere bizitzea sekretuz beteik dagola. Ioiz ez dakit non ote dagon ene emaztea, eta horrek ioiz ez daki non ote nabillen ni. Elkarreki gaudelaik, ordea, aurpegia serio dugula erraten diogu gezurra elkarri.

–Ez zaida batere agratzen nola hitz egiten duzun zaure ezkonbizitzeas, Harry –erran zio Basil Hallwardek, lorategira atratzeko atera joan bitartean–. Uste dut laizki senar ona zarela, baña horrexek ahalketzen zaituela. Ioiz ez duzu deus onik erraten, eta ioiz ez duzu deus txarrik iten.

Lord Henryk barre egin zue, eta bi gizonak elkarreki atra zire lorategira. Txoko bateko xarleku batean xarri zire. Aldi bates ixilik egon ondoan, Lord Henryk gibelera mogitu zue bere kapela.

–Juan beharra dut, Basil –erran zue, agotsa[14] lasai–. Baña, juan baño lehen, Dorian Grayren erretratua zergatik ez duzun erakutsi nahi argitzea nahi nuke. Egiasko arrazioa xakin nahi dut.

–Erran dizut, ordea, egiasko arrazioa.

–Ez dirazu erran, ez horixe. Hartan zaure baitako gehiegi xarri duzula erran dirazu. Hori umekeria hutsa da.

–Harry –Basil Hallwardek orduan, harren aurpegira txujen[15] begira–, sentimentureki margotuikako margolan oro artistarena da, ez modeloarena. Ez dut margolan hori erakutsiko, naure arimaren sekretua erakutsiko ote duen beldurres bainago.

Lord Henryk barre egin zuen berris.

–Eta zein sekretu da hori, bada? –galdegin zue.

–Tira, ez dago errateko anis, Harry –errespondatu zio margolariak–, eta ez dut uste entendatuko duzunik. Benturas, siñestatu ere ez duzu inen.

Lord Henryk barre txipia egin eta lore bat hartu zue belarretatik.

–Seguru nago adituko dutela –errespondatu zue, loreari erne begira–, eta edozer siñestatzeko gauza naiz.

–Kontu sinplea da, bada –mintzatu ze margolaria–. Badu bi hilabete Lady Brandonen etxeko xai batera juan nizala[16]. Egonkanbran[17] hamar bat minutuan egon ondoan, bat-batean norbait eni begira zegola goartu niza[18]. Jiratu, eta Dorian lehenbisko aldis ikusi nue. Gure begiek topo in zutenean, odola ene aurpegitik desagirtzen sentitu nue. Mutil hura naure arima izain zela[19] xakin nue, naure artea bera.

–Zer in zindue zuk?

–Elkarrenganik hurbil gindaude, kasik elkar ukitzen. Elkarri begiratu gindio berris ere. Lady Brandoni gu aurkezteko eskatu nio.

–Zer erran zue Lady Brandonek Dorian Gray jaunas?

–Bada, honlako zerbait: «Mutil xarmagarria da. Ez dakit zer iten ote duen... ez dut uste deus iten duenik. A, bai, pianoa jotzen du... edo biolina ote da, Gray jaun maitea?». Dorian eta biok barres hasi eta berla aixkidetu ginda[20].

–Barre egitea ez da, gero, aixkidetasunari ekiteko modu txarra –erran zue lord gazteak, bertze lore bat hartu artean–, eta hura amaitzeko modurik hoberena da.

Hallwardek burua mogitu zue.

–Ez duzu aditzen[21] aixkidetasuna zer den, Harry. Bortz axola zaizu guzia.

–Ez da egia! –egotzi zue Lord Henryk, kapela gibelera mogitzeareki batio, eta udako zeruari begira–. Nere lagunak haien edertasunaren arabera hautatzen tut, eta nere etsaiak haien adimenaren arabera. Gizona ezin da arretatsuegia izan

bere etsaiak hautatzeko garaian. Eta, noski, nik gorroto handia diotet ene senideegi[22]. Eta jende landerrari[23], itxusiak baitire, tutuluak eta mozkorrak.

–Ez nago ados erran duzun deuseki. Eta seguru nago zaurori[24] ere ez zaudela.

Lord Henryk bizarra ukitu zue behatz bateki, eta zapataren punta eskumakilareki.

–Zein ingelesa zaren, Basil! Ingeleseri ideia xakin bateki ados dauden baizik ez zaiote interesatzen, ez ideia txujena ala makurra[25] den. Baña hitz egin zadazu Dorian Gray jaunas. Anis aldis[26] ikusten duzu?

–Egunoros. Ezinko nizake[27] zoriontsua izan, hura egunoros ikusiko ez banu.

–Bikain! Uste nue zure artea soilik axola zitzaizula.

–Hura da orai ene arte osoa –adierazi zue margolariak–. Ongi dakit Dorian Gray izautues geros[28] nik egin duten lana nere bizitzeko hoberena dela. Modu bitxi batean, haren nortasunak arte mota berri bat erakutsi dira[29]. Mutil gaxtea iduri du, laster hogei urte izain baditu ere, eta eneki dagolaik mundua laizki desberdin ikusten dut.

–Bai, hori biziki ona da! Dorian Gray ikusi behar dut.

Hallward xarlekutik altxatu eta alde batetik bertzera ibilli ze lorategian. Pixka bat geroago itzuli ze.

–Harry –erran zio–. Dorian Gray nere artearen izateko arrazioa da. Zuk ezin duzu harren baitan deus ikusi. Nik, berris, guzia ikusten dut harren baitan.

–Orduan zengatik ez duzu harren erretratua erakutsi nahi? –galdegin zue Lord Henryk.

–Artistak gauza politak margotu behar lituzke, baña ez luke haietan bere bizitzeko deus ere xarri behar. Egunen batean munduari edertasuna zer den erakutsiko diot. Horrexegatik, munduak ez du sekula Dorian Grayren erretratua ikusiko.

–Makur zaudela pensatzen dut, Basil, baña ez naiz eztabaidan hasiko zureki. Erran zadazu, oso gogoko zaitu Dorian Grayk?

Margolariak pixka batean pensatu zue.

–Harren gustukoa naiz –errespondatu zue pixka bat geroago–. Badakit harren gustukoa naizela. Ongiegi tratatzen dut, noski, eta erran behar ez nizkiokenak erraten dizkiot. Oso atsegina da eneki, eta milaka ordu zoragarri pasatzen dugu elkarreki. Baña batzuetan ikaragarri axolagabea izaten da, eta eni min egitea agratzen zaiola iduri du. Halakoetan sentitzen dut, Harry, ezi naure arima osoa eman diotela nik, lorea udako egun bates boton-zuloan xartzean bejala erabiltzen duen bati.

–Udako egunak luzeak dire, Basil –erran zue Lord Henryk, ahopean–. Benturas, hura baño lehen aspertuko zare. Adimena iraunkorragokoa da edertasuna baño. Egunen batean zure lagunari begiratu, eta harren azalaren tonua edo bertze zerbait ez zaizu agratuko. Orduan, zureki gaizki portatu dela pensatzen hasiko zare.

–Harry, ez hitz in horla. Ni bizi naizen artean, Dorian Gray berebizikoa izain da enetako. Zuk ezin duzu sentitu nik sentitzen dutena. Zu maizegi aldatzen zare.

–Ene Basil maitea, hain txujen ere horregatik senti zaket zuk bejala –Lord Henryk zilarresko bere zigarro-untzi ederretik

zigarro bat atra eta itxigi zue[30]. Gero Hallwardengana itzuli ze eta arran zio–: Oraintxe oroitu naiz.

–Zertas oroitu zare, Harry?

–Non entzun duten Dorian Grayren izena.

–Non? –galdegin zue Hallwardek, bekoskia[31] zimurturik.

–Ez zeit[32] hasarratu, Basil. Ene izeba Lady Agatharen itxean izan ze. Gazte zoragarri hori kausitu zuela erran zira[33]. Harrek Londresko East Endeko jende landerrarendako lanean lagunduko zio, eta harren izena Dorian Gray ze. Nik orduan, noski, ez niakie[34] zure laguna zenik.

–Pozten naiz ez xakiteas, Harry.

–Zer bada?

–Ez dut nahi hura ezau zazun.

–Ez duzu nahi hura ezau zadan?

–Ez bada.

Orduan etxeko zerbitzaria lorategian agirtu ze eta erran zue:

–Dorian Gray jauna etxedeten[35] dago lankanbran.

–Orai aurkeztu beharko nauzu –erran zue Lord Henryk bizikiro, barres.

Margolaria bere zerbitzariaren aldera jiratu ze.

–Erran zaiozu Gray jaunari etxedeteko, Parker. Berla sartuko naiz.

Orduan Lord Harryri begiratu zio.

–Dorian Gray ene lagunik maiteena da –erran zio–. Pertsona guzis ona da. Ez zazu hondatu. Ez zeit, gero, harren baitan

eraginik izaten saiatu. Zure eragina kalterako lizake. Ez kendu eni, gero, egiasko artista iten nauen lagun bakarra.

–Zer nolako tutulukeriak erraten tuzun! –erran zio Lord Henryk barres. Hallwardi besotik heldu zio eta kasik tiraka sarrarazi zue etxe barrura.

# BIGARREN KAPITULUA

Sartu zirelarik Dorian Gray ikusi zute. Pianoaren aurrean xarririk zego, bizkarra erakusten ziotela[36], eta Schumanen musika-idazlan baten orriak pasatzen ari ze.

–Hau utzi behar dirazu, Basil –erran zue bizi-bizi–. Ikusi nahut[37]. Zoragarria da, guzis.

–Beharbada bai, egun enetako posatzen baduzu, Dorian.

–Ene, nekaturik nago posatzen, eta ez dut korputz osoko erretraturik nahi –errespondatu zue gazteak, poliki jiratzeareki batio. Lord Henry ikusi zuenean, pixka bat gorritu ze–. Sentitzen dut, Basil. Ez niakie bertze norbaiteki zindaudenik[38].

–Hau Lord Henry Wotton da, Dorian. Aspaldiko lagunak gare. Elkarreki ibilli ginda Oxforden. Laizki modelo ona zarela erran berri diot, eta orai guzia hondatu duzu.

–Ez duzu hondatu nik zu izautzeko atsegina, Gray jauna –erran zio Lord Henryk, harrengana hurbildu eta eskua luzatzeareki batio–. Ene izebak maiz hitz in dira zutas.

–Beldur naiz Lady Agatha ez ote den hones geros nitas nekatu. Asteartean berareki Whitechapel klubera juain nizala

hitz eman nio, eta guzis atzendu zekida[39]. Ez dakit zer erranen ote diran.

Lord Henry gazteari begira zego. Bai, guzis ederra ze, egias, ezpain gorri biribil haieki, begi urdin zintzoeki eta bilo[40] urrestatuareki.

–Ez zeit ene izebarengatik kezkatu; harren lagun kutunetarikoa zare. Eta xarmagarriegia zare hor nonbait jende landerrari laguntzen denboraren galtzen ibiltzeko.

Lord Henry besaulkian xarri ze eta bere zigarro-untzia iriki zue. Basil margolaria bere lanerako prestatzen ari ze, koloreak nahasis eta pintzelak txukundus. Bat-batean Lord Henryri begiratu eta erran zio:

–Harry, erretratua egun bukatu nahi nuke. Desatsegina izain naiz juan zeitela eskatzen badizut?

Lord Henryk barre egin zue eta Dorian Grayri begiratu zio.

–Juan behar dut, Gray jauna? –galdegin zue.

–O, ez zaiozu kasu in, mertxedes[41], Lord Henry. Nik ikusten dutenes, Basilek umore txarraldi horietarik bat du, eta ez zaizkida batere agratzen. Gañera, jende landerrari zengatik ez nioken lagundu behar erran zadazun nahi dut.

–Hori laizki aspergarria lizake, Gray jauna. Baña oso pozik gailtuko[42] naiz, zuk ez baduzu nahi juan nadien. Ados zaude, Basil? Anis aldis erran dirazu gogoko duzula zure modeloek norbait edokitzea harrekin hitz egiteko.

Hallwardek hozka egin zio ezpainari.

–Dorianek harla nai barinbadu. Dorianek beti erdesten du nahi duena.

Lord Henryk kapela eta eskularruak hartu zitue.

–Ez, juan beharra doket. Agur, Gray jauna. Zatoz arratsalde batean Curzon karrikara ene ikustera. Bortzetan kasik beti egoten naiz itxean.

–Basil –erran zue Dorian Grayk ozen–, Lord Henry Wotton juaten barinbada, ni ere juain naiz. Margotzen ari zarela sekula ez duzu hitzik erraten, eta hori oso aspergarria da, hemen txutirik dagonarendako. Eska zaiozu gailtzeko.

–Ongi da, mertxedes gail zeit, Harry. Dorianengatik eta enegatik –erran zue Basilek, bere koadroari begira–. Egia da lanean ari naizelaik ez dutela hitz egiten, eta entzun ere ez dut egiten. Oso aspergarria naiz, iduris, ene modeloendako. Xar zeit berris, Harry. Eta Dorian, ez zeit gehiegi mogitu eta ez kasurik in Lord Henryk dionari[43]. Oso eragin txarra izaten du bere lagun guzien baitan.

Dorian Gray txutirik egon ze Basil Hallwardek harren erretratua bukatzen zuen artean. Lord Henryren baitan ikusi zuena agratu zekio[44]. Basil eta hura hain desberdinak ziren! Eta oso agots polita zeuka. Pixka bat geroago erran zio:

–Egia ote da hain eragin txarra izaten duzula, Lord Henry? Basilek dion bejain txarra?

–Eragina beti da txarra.

–Zengatik?

–Zengatik norbaitek eraginik izateak harri arima eskaintzen zaiola erran nahi baitu. Pertsona guziek izan behar dute beresko nortasuna.

–Mogitu burua pixka bat eskuietako aldera, Dorian –manatu zue margolariak. Ez ze elkarrizketa entzuten ari, eta gauza

bat baño ez ziakie: gaztearen begietan ioiz ez bejalako begirada ikusten zela.

–Eta halarik ere –segitu zue Lord Henryk bere agots lasai eta musikalareki–, gizon batek bere bizitzea bete-betean bizies geros, mundua alda zakela[45] pensatzen dut. Hori ioiz idurikatuikako artelanik handiena lizake. Baña gizonik ausartena ere bere buruaren beldur izaten da. Zu, Gray jauna, oso gaztea zare, baña beldurtzen zaituzten grinak dozkezu, ametsak...

–Aski da! –Dorian Grayk orduan, bizikiro–. Ez dut entendatzen diozuna. Pensatu beharra doket.

Kasik hamar minutuan hantxe egon ze txutirik, ezpainak zabalik eta begiak modu harrigarrian argi. Basilen lagunak erranikako hitzek gaztearen arima ukitu zute. Nerabezaroan izan zitue, bai, entendatu gabeko bizipenak. Orai entendatzen zitue.

Lord Henryk irribarre egines begiratu zio. Baziakie zein zen deus ez errateko momentu egokia. Harriturik zego, bere hitzek gaztearen baitan nolako eragina izan zuten ikusirik. Nolako mutil liluragarria zen!

Hallwardek margotzen segitu zue eta ez ze goartu bertzeak ixilik zeudela.

–Basil, nekatuik nago –erran zue Dorian Grayk orduan–. Lorategira atra eta berean xarri beharra doket. Hemen ezin dut hats hartu[46].

–Ene mutil maitea, sentitzen dut. Margotzen ari naizelaik, naure lanaz baizik ezin dut pensatu. Baña ioiz ez duzu egun baño hobeki posatu. Ez dakit zer erran ote dizun Harryk, baña zure begiek dir-dir zoragarria dokete. Lausengatu zai-

tuela pensatzen dut. Erraten duen hitz bakar bat ere ez zindioke siñestatu behar.

–Ez dit batere lausengurik in. Benturas horrengatik ez dut siñestatzen erran diran deus.

–Badakizu guzia siñestatu dirazula –erran zio Lord Henryk, begi ameslarieki begiratzen ziola–. Zureki joango naiz kanpora, lorategira. Kanbra hontan bero handia dago.

–Ez entretenitu Dorian luzaroegi –erran zue pintoreak–. Hau nere koadrorik hoberena izain da.

Lord Henry lorategira atra ze, eta Dorian lore bat aurpegi aitzinean zeukiela kausitu zue. Harrengana hurbildu ze eta esku bat xarri zio soñegian[47]. Dorian Gray pixka bat ikaratu ze eta baztertu. Agratzen zekio ondoan zeukien gizon gazte garaia. Harren aurpegia ilun eta erromantikoa interesgarri zekio. Bazego zerbait liluragarria harren agots baxu eta musikalean. Baña beldur pixka bat zue. Ezezaun harrek zergatik zeukie harlako eragin handia beraren baitan? Hilabeteak zire Basil Hallward ezautzen zuela, baña bien arteko aixkidetasunak ez zue gaztea aldatu. Bat-batean norbait harren bidean gurutzatu ze, eta bizitzearen misterioak argitzen zizkiola iduri zue; delako harrek misterio haien giltza zeukiela iduri zue. Eta, halarik ere, zeren beldur izan behar zue? Bera ez ze ikasle gaxtea edo nesakoa[48]. Zentzugabekeria hutsa ze beldur izatea.

–Xar gaitzen[49] itzalean. Ez nuke nahi iguzkiak zu erretzerik.

–Zer axola dio, bada? –egotzi zue Dorian Grayk barres, lorategiaren barreneko xarlekuan xarri artean.

–Axola behar lizuke, Gray jauna.

–Zergatik?

–Gaztea baizare, eta gaztea izatea munduko gauzarik hoberena da.

–Eni ez zaida iduritzen hori horla denik, Lord Henry.

–Ez, orai ez zaizu horla iduritzen. Egunen batean, zaharra eta itxusia zarenean, ikaragarria idurituko zaizu. Orai, noranahi zoazela ere, jende guzia erakartzen duzu. Horla izain ote da hori beti...? Aurpegi ederra daukazu, Gray jauna. Ez zimurtu bekoskia. Egia da ederra daukazula. Jainko-jainkosak zure alde izan tuzu. Baña haiek ematen dutena, berriro kentzen dute laster. Urte batzuk bertzerik ez daukazu bizitzea egias eta bete-betean bizitzeko. Bizi zazu zure bizitzea orai, gaztea zaren artean!

Orduan margolaria lankanbrako atean agirtu ze eta sartzeko zeñua egin ziote[50]. Elkarri begiratu ziote irribarre egines.

–Etxedeten nago –erran ziote oihuka–. Mertxedes, sar zeite. Argia ezin hobea da orai.

Biak txutitu eta etxera ibilli zire.

–Pozten zare ni izautu izanas, Gray jauna? –galdegin zue Lord Henryk, gazteari begira.

–Bai, orai pozten naiz. Beti horla izain ote den xakin nahi nuke.

–Beti! Hitz ikaragarria da hori gero. Emazteegi[51] laizki agratzen zaie erabiltzea.

Hogei minutu geroago Hallwardek margotzeari utzi zio. Beti bejala txutirik, erretratuari aldi bates begiratu zio. Orduan, makurtu ze eta pintura gorris margolanaren behean eta ezkerreko aldean sinatu zue.

–Bukatu dut –adierazi ziote laguneri.

Lord Henry hurbildu ze eta erretratua aztertu zue. Egiasko artelan zoragarria ze.

–Ene aixkide maitea –erran zio artistari–. Hauxe da gure garaiko erretraturik hoberena.

Dorian ere margolana ikustera hurbildu ze. Ikusi zuenean, matelak[52] gorritu zezkio atsegines. Bizitzean lehenbisko aldis bere edertasunas xabetzen zela sentitu zue. Baña orduan Lord Henryk lehenago erranikakoas oroitu ze. Urte batzuetan soilik iraunen zue edertasun harrek. Egunen batean zaharra eta itxusia izanen ze.

–Ez zaizu agratzen? –galdegin zio Hallwardek, ez baitzuen entendatzen zergatik ote zegon gaztea hain luzaro ixilik.

–Xakina bada agratzen zaiola –Lord Henryk orduan–. Arte modernoko margolanik hoberenetariko bat da. Nahi duzuna ordainduko dizut lan honengatik. Nerea izan behar du.

–Ez da enea eta ezin dut saldu, Harry.

–Norena da, bada?

–Dorianena, noski –Basilen erantzuna.

–Laizki zorionekoa da.

–Zein tristea den! –erran zuen Dorian Grayk orduan, erretratuaren aurrean txutirik segitus–. Zaharra eta itxusia inen naiz. Baña erretratu hau beti egoin da gazte. Ioiz ez da izain ekaineko egun hontan baño zaharragoa... Hori alderantzis balitz!

–Zer erran nahi duzu? –galdegin zio Hallwardek.

–Ni betiko gazte gailtuko baniz eta erretratua ene ordes zahartuko balitz... Edozer emain nuke! Bai, munduko edozer emateko prestik nengoke! Arima ere emain nuke hori erdesteagatik!

–Ez dut uste zure lanari horlako ukiturik egiterik gustuko izain zenukenik, Basil –erran zue Lord Henryk, barre egines.

–Ez horixe, Harry –Hallwarden errespondatzea.

Dorian Gray jiratu eta harri begira xarri ze.

–Maiteagoko duzu zaure artea zaure lagunak baño.

Margolariak harriturik begiratu zio. Zergatik hitz egiten zue Dorianek harla? Zer agitu[53] ze? Harren aurpegia gorri zego eta aski hasarre zegola iduri zue.

–Beti agratuko zaizu margolan hau. Baña zenbat denboran agratuko naizu[54] ni? Zahartzen hasten naizen artio. Lord Henry Wottonek arrazio osoa du. Nik edertasuna galtzen duten egunean, guzia galduko dut. Naure burua hilen dut zahartu baño lehen.

Hallward zurbil xarri ze eta eskutik heldu zio.

–Dorian! –erran zio bizikiro–. Ez horlakorik erran. Sekula ez dut zu bejalako lagunik iduki, eta sekula ez dut bertzerik idukiko. Nola zaude jeloskor koadro bates? Zu edozein artelan baño ederragokoa zare.

–Edertasuna galtzen ez duen edozerk paratzen nau jeloskor. Egin dirazun erretratuak ere harla paratzen nau. Zergatik gorde behar du honek, nik galduko duten hori?

Begiak glarima[55] beros bete zezkio, besaulki gañean etzaten zen bitartean.

–Hauxe da erdetsi duzuna, Harry –erran zio margolariak, hasarre.

Lord Henryk soñegiak goititu zitue.

–Hauxe da egiasko Dorian Gray... Hori da guzia.

–Harry, ezin naiz eztabaidan ibilli ene bi lagunik hobereneki. Bion artean erdetsi duze nik ioiz in duten artelanik hoberena gorrota zadan. Berla txikituko dut.

Dorian Grayk orduan Hallward pintura-mahaira joaten eta han zegon ganibeta hartzen ikusi zue. Gaztea jauzi batean xaiki ze besaulkitik, Hallwarden eskutik ganibeta hartu eta langelaren bertze aldera bota[56] zue.

–Ez horlakorik in, Basil! –erran zio oihuka–. Krimena lizake!

–Pozten naiz, azkenik nere lana agratzen zaizula ikusirik, Dorian –erran zue artistak hozkiro–. Ez zue iduri agratzen zekizunik[57].

–Agratu? Berareki maitemindurik nago, Basil. Naure baitakoa da. Horla sentitzen dut berere[58].

–Zek[59] bai tutuluak! –erran ziote Lord Henryk biei–. Atzen zagun[60] koadroa gau bates, eta juan gaitzen antzokira.

–Zureki juan nahi nuke antzokira, Lord Henry –eskatu zue Dorian Grayk.

–Zu ere etorriko zare, ezta, Basil?

–Ezin dut –errespondatu zio margolariak lord lagunari–. Lan handia doket orañik iteko.

–Tira, zu eta biok elkarreki juanko gare[61], Gray jauna.

Margolariak ezpainari hozka egin zio.

–Hementxe egoin naiz, egiasko Dorian Grayreki –erran zue goibelki.

Bi lagunak joan zezkionean, artista besaulkian etzan ze. Min zeñu bat agiri zekio aurpegian.

# HIRUGARREN KAPITULUA

Biharamunean, eguerdiko hamabietan, Lord Henry izeba Lady Agatha bisitatzera joan ze. Basilek ez zio luze hitz egin Dorian Grays, eta gehiago xakin nahi zue. Izeba harritu ze, han ikusi zuelarik.

–Nik uste nue zek, egungo gazteak, ez zindatela[62] ioiz arratsaldea baño lehen xaikitzen –erran zio emazteak.

–Izeba maitea, informazio bila nabil –errespondatu zue Lord Henryk–. Atzo Dorian Gray izautu nue, eta hartas zerbait yago[63] xakin nahi nuke.

–Oi, Lord Kelsoren iloba[64] da –argitu zio Lady Agathak–. Harren ama Lady Margaret Devereux ze, oso emazte ederra. Itxetik igas in[65] zue soldadu lander bateki ezkontzeko. Hilabete batzuk geroago senarra hil ziote, eta emazte dohakabea ere semea xaio eta handik gutira hil ze. Emazte xarmagarria ze. Dorian Grayk harren edertasuna du, eta uste dut bere aitonaren dirua ere laster izain duela.

–Bai, egia da ezi laizki itxura ona dokela –gehitu zue Lord Henryk.

–Zatoz bazkaltzera –konbitatu zue izebak–. Dorian Gray hemen izain da, eta berris ikusi ahal izain duzu.

–Egias pozik etorriko naiz –errespondatu zio Lord Henryk, irribarretsu.

Etxetik atratzean, Lord Henry izebak kontatu zion agitze tristean pensatzen ari ze. Orai lehen baño anises interes handiagoa zue Dorian Gray gazte ederraren baitan. Orai baziakie zurtza zela eta laster guzis abrastuko[66] zela, hogei urte beteko zituenes geros. Orduan Lord Kelsoren diru guzia idukiko zue. Aurreko gauas oroitu ze: Dorianek bere begi urdineki begiratzen zio, aldi berean liluraturik eta izuturik.

«Orañik ez du bere burua izautzen», pensatu zue Lord Henryk, irribarretsu. «Baña nik erakutsiko diot. Bai, nauronek nahi duten bidetik bidera nezake. Gaztetasunaren, maitasunaren eta bizitzearen sua kausitzen irakatsiko diot».

Lady Agatharen etxean bazkaltzeko elkartu zen jendearen elkarrizketa bizia eta intelektuala ze. Lord Henryk, betiko moduan, umoretsu eta alper hitz egiten zue, eta baziakie Dorian Grayk adi begiratzen eta entzuten ziola.

Orduan, bazkaltiarrak gai xakin bates hasi zire mintzatzen: lagun batek nesako iparramerikar bateki ezkontzeko zuen asmoas.

–Emazte amerikar hoiek zengatik ez ote dire beren herrialdean gailtzen? Beti erran digute Ipar Amerika egiasko paradisua dela emazteendako –erran zue Lord Burdonek, bizikiro.

–Eta harla da –Lord Henryk orduan–. Horrengatik hain txujen ere, poz handis juaten dire handik.

–Diotenes –gehitu zue Lady Agatharen ondoan xarririk zegon gizonak–, iparramerikar onak, hiltzen direlaik, Parisa juaten dire.

–Egias? Eta nora juaten dire iparramerikar gaiztoak, hiltzen direlaik? –galdegin zio Lady Agathak.

–Ipar Amerikara, noski –errespondatu zue Lord Henryk.

Konbitatuek irribarre egin zute eta, gero, bertze gai batzuen gañean hitz egiten hasi zire. Lord Henryk ideiak hartzen zitue maileguan eta haieki jolasten ze; hegoak xartzen zizkiote[67], eta kanbran hegaldatzen zire kolore bizietako txorien gisan. Jendeak irribarre eta barre egiten zue, eta guziek erraten ziote Lord Henryri serioagoa izan behar zuela. Anis hitz egin zue, barres hitz jokoak egiten segitu zue, eta gauza dibertigarriak erraten. Eta gauza burutsuak eta laizki arriskutsuak ere erran zitue. Guziek entzuten zute Lord Henryk ziona, baña hura ez zekie[68] guzieri mintzatzen. Dorian Grayri txujentzen zizkio hitzak. Gazteak anis adi begiratzen zio, batzuetan harriturik, baña beti arreta handiareki entzuten zue guzia.

Bazkaldu ondoan, Lord Henryk parkera zihoaiela erran zue, eta, kanbratik atratzen ari zelarik, Dorian Grayk besoa ukitu zio.

–Zureki juan ninteke? –galdegin zio.

–Baña zuk ez zindio[69] Basil Hallwardi hitz eman ikustera juain zindala[70]? –errespondatu zio Lord Henryk.

–Bai, baña nahiago dut zureki juan. Utz zadazu, mertxedes –erregutu zio Dorianek–. Zure hitzak entzun nahi tut; iork ez du zuk bejain ongi hitz iten.

–Ene, aski hitz in dut egun –erran zue Lord Henryk, betiko irribarreareki–. Baña zatoz eneki, harla nahi baduzu.

# LAUGARREN KAPITULUA

Arratsalde batean, hilabete geroago, Dorian Gray Lord Henryren Mayfairreko etxeko liburutegi txipian xarririk zego. Lord Henry ez ze etxera allagatu[71]. Beti berandutzen ze, puntualtasuna denbora-ebaslea dela pensatzen baizue. Dorian Gray asperturik zego eta, behin edo bitan, joatea pensatu zue.

Azkenean pausu hotsak entzun zitue, eta atea iriki ze.

–Bai berandu zatozela, Harry! –erran zue gazteak.

–Ez naiz, bada, Harry, Gray jauna. Harren emaztea baño ez naiz.

Gazteak fite[72] begiratu zue ingurura eta txutirik xarri ze.

–Sentitzen dut. Ez dut, bada, pensatu...

–Aski ongi izautzen zaitut, argazkietan ikusi zaitutenes geros. Ene senarrak zure hamazazpi bat argazki idukiko tu.

–Hamazazpi, Lady Henry?

–Tira, hemezortzi orduen. Eta harreki antzokian ikusi zinturan aitzineko gauean. Baña hemen dago Henry!

Lord Henryk irribarre egin ziote biei.

–Sentitzen dut honen berandu allagatzea, Dorian.

–Nik juan beharra dut –erran ziote Lady Henryk–. Agur, Gray jauna. Agur, Harry. Kanpoan bazkalduko duzula pensatzen dut. Nik ere bai. Benturas geroago ikusiko zaitut.

–Benturas bai, maitea –erran zio Lord Henryk, eta emaztea atratzean atea ertxi[73] zue.

–Zu ez zeit ioiz ezkondu lasto itxurako bilodun iongo emaztereki, Dorian –erran zio lagunari.

–Zergatik ez, Harry?

–Erromantikoak baitire.

–Baña eni agratzen zaida jende erromantikoa.

–Ez zeit ioiz ezkondu, Dorian.

–Ez dut uste ezkonduko naizenik, Harry. Maiteminduegi nago.

–Noreki zaude maiteminduik, bada? –galdegin zio Lord Henryk, etenaldi txipi baten ondoan.

–Nesako aktore bateki –Dorian Grayren errespondatzea.

–Hori da hori arrunkeria.

–Ez zenuke hori erranen hura ikusi bazenu, Harry.

–Nor da nesako hori?

–Harren izena Sibyl Vane da.

–Ez dut ioiz entzun.

–Iork ez du entzun. Baña jendeak noizbait entzuin du[74]. Egiasko artista da.

–Ene mutil maitea, ez dago emazte artistarik. Emazteek sekula ez dokete deus errateko, baña modu xarmagarrian errateonte[75]. Zenbat denbora da izautzen duzula?

–Hirur[76] bat aste.

–Eta non izautu zindue?

–Erranen dizut, Harry, baña ez duzu barre in behar. Azken batean, zaurori zare guzia xakiteko txirrinta[77] ene baitan itxigi zuena. Zu izautu ondoan, egunak eman tut karriketan barna ibilki edertasunaren bila. East Enden ibilli niza antzoki txipi eta zikin bat kausitu nuen artio. Yadanik irris ari zarela ikusten dut. Ikaragarria zare!

–Ez naiz irris ari, Dorian. Segi kontatzen.

–Antzezlana *Romeo eta Julieta* ze. Hastean[78] Shakespeare leku negargarri hartan ikustea gauza aspergarria izain zela pensatu nue. Eta jaun heldu eta lodi bat Romeorena iten agirtu zenean, kasik beretik atra niza lasterka. Baña orduan Julieta ikusi nue! Harry, nesako hura nik bizitzean ikusi duten gauzarik ederrena ze.

–Noiz izautu zindue?

–Hurrengo gauean itzuli niza, eta hurrengoan ere bai. Hirugarrengoan antzokiaren kanpoan gailtu niza harri etxedeten.

–Nolakoa da?

–Sibyl? Bada, herabea eta adeitsua. Hamazazpi urte bertzerik ez du, eta harren baitan nesako arrastoak daude. «Printzea iduri duzu, jauna. Printze Xarmagarri deituko dizut».

–Sibyl andereñoak badaki nola balakatu zu.

–Ez duzu entendatzen, Harry. Harren ustes, Shakespeareren pertsonaia bat bejalakoa naiz. Ez daki deus bizitzeaz. Sibyl da orai berean arduratzen nauen gauza bakarra.

–Hori izain da, noski, zu orai eneki afaltzera kasik ioiz ez etortzeko arrazioa. Arrazio erromantikoren bat izain zela pensatzen nue.

–Ene Harry maitea, egunoros alamortzatzen[79] edo bazkaltzen dugu elkarreki, eta hanbat aldis juan naiz zureki operara –erran zue Dorianek.

–Beti heltzen zara laizki berandu.

–Tira, Sibyl antzezten ikusi behar dut –erran zio bizikiro–, ekitaldi bakar batean bada ere.

–Gaur eneki afalduko duzu, Dorian?

Gazteak burua mogitu zue.

–Gaur Sibyl Ofelia izain da antzokian –errespondatu zio–, eta bihar gauean Julieta izain da.

–Eta noiz izain da Sibyl Vane?

–Ioiz ez.

–Hori ona da.

–Ikaragarria zare! Baña Sibyl ikusten duzulaik eritzis[80] aldatuko duzu. Bihar gauean Basil eta zu hura antzezten ikustera etortzea nahi nuke. Zoragarria dela onartu beharko duzu.

–Ongi. Bihar ilunsarrean[81]. Basil aitzinetik ikusiko duzu? Edo nahiago duzu nik harri idaztea?

–Basil gaixoa! Astebetean ez dut ikusi. Oso gaizki portatu naiz, duela egun batzuk ene erretratua bialdu baizira itxera. Atsegin handis egoten naiz harri begira. Benturas idatzi behar nioke. Ez dut Basil bakarrean ikusi nahi. Aspertzen nauten gauzak erraten tu. Konseju onak ematen dira[82].

Lord Henryk irribarre egin zue.

–Jendeari agratzen zaio gehien behar duena bazterrean uztea.

–Oi, Basil gizon ona da, baña ez dut uste egias aditzen tuenik artea eta edertasuna. Nik zu izautu zinturanetik, aldis, hori guzia kausitu dut.

–Basilek, ene mutil maitea, doken zerarik zoragarriena xartzen du bere lanetan.

–Orain juan beharra dut, Harry. Nere Julieta etxedeten doket. Ez atzendu biharkoa, mertxedes.

Dorian kanbratik atra zenean, Lord Henry ikasi berri zuen hartas pensatzen hasi ze. Egias jende guti izan zekio Dorian Gray bejain interesgarria eta, halarik ere, gazteak nesako aktoreari zion miresmen eroak ez zio ez hasarrerik ez jeloskortasunik sortzen. Atsegina sortzen zio. Mutila horla ikergai interesgarriagoa ze.

Lord Henryk gauza haieki amets egiten zuen bitartean, atea jo zute eta harren zerbitzaria barrura sartu ze. Afarirako ordua zela oroitarazi zio. Iguzkiak aurreko etxeetako leihoak urrestatu zitue.

Etxera itzuli zenean, hamabi eta erdiak inguruan telegrama bat kausitu zue ate ondoko mahai gañean. Iriki eta Dorian Grayrena zela ikusi zue. Gazteak hartan erraten zue ezi Sibyl Vanereki ezkontzekoa zela.

# BORZGARREN KAPITULUA

–Ama, ama, laizki zoriontsua naiz! –erran zue Sibyl Vane gazteak–. Laizki zoriontsua naiz, eta zu ere harla izatea espero dut.

Vane andreak ez zue zoriontsu iduri. Emazte txipia eta fina ze, beti nekatua iduri zuena. Makillaje ugari zeukie aurpegian eta ago fin eta lehorrean.

–Ene, Sibyl –erran zue emazteak–, ez duzu yago pensatu behar antzokira etortzen den gizon gazte horren baitan. Zure antzezlanetan pensatu behar duzu. Isaacs jauna hasarratuko da ez barinbaduzu ongi antzezten. Dirutza handia mailegatu digu, eta ez duzu antzerki administratzailerik hasarrarazi behar.

–Ez zaida agratzen Isaacas jauna, ama, eta dirua ez zaida axola –errespondatu zio Sibylek–. Printze Xarmagarriareki maiteminduik nago.

–Sibyl, Isaacs jaunak berrogeita hamar libera eman digu[83] gauren zorren ordaintzeko, eta Jamesi itxurasko beztidura[84] erosteko. Zuk maite duzu zure anaia[85] James, ezta? –galdegin zue Vane andreak.

–Bai, xakina maite dutela –Sibylen errespondatzea–. Baña orai Printze Xarmagarria dokegu. Ez dokegu Isaacs jaunaren beharrik.

Sibyl Vane bere amareki bizi ze eta bere anaia Jameseki. Londresko iparraldean bizi zire, etxe txipi batean, Lord Henryren luxusko etxetik oso urruti. Aurreko egunean Sibylek Dorian Grayreki ezkontzea onartu zue. Ama-alabak etxeko egonkanbra txipian ari zire tar-tar hitz egiten.

–Sibyl –erran zue amak–, gazteegia zare maitemintzeko. Ez dakigu deus jaun gazte hortas. Laizki arranguratuik[86] nago zuregatik. James laster abiatuko da Australiara, eta zu maiteminduik zaude. Zer inen ote dut?

Bere alabaren aurpegi ederrari so gailtu ze, eta gero maitasunaren periles[87] goartarazi nahi izan zue, baña nesakoak ez zio kasurik egin. Maitasunaren kaiolan preso zego.

Orduan atea iriki ze eta James Vane kanbran sartu ze. Hamasei urte zitue eta ez ze bere arrebaren idurikoa. Sibyl ederra eta txipia ze, bilo distiratsu kaztañ-koloreduna. James, ordea, garaia ze, eta esku eta oñ handiak zeuzkie. Harren azala beltzarana ze eta biloa iluna. Mutilak bere arrebari irribarre egin eta, gero, oso serio hitz egin zio.

–Antzokian gizon batek gauoros bisita egiten dizula entzun dut. Nor da? Zer nahi du?

–Ene, James, mertxedes ez hasarratu egun eneki –eskatu zio Sibylek–. Bihar Australiara juain zare eta hau da hemen egoin zaren azken eguna.

James Vanek maitasunes begiratu zio arrebari aurpegira.

–Goazen ibillaldi baten egitera –erran zio–. Zureki hitz in nahi dut.

Sibyl egonkanbratik atra ze bere berokia hartzeko, eta harren amak eta anaiak eskallera goiti[88] kantuan zihoaiela entzun zute. Mutila bizpahiru aldis ibilli ze kanbran harara eta honara[89].

–Sibylek arranguratuik nauka –txujendu zekio amari–. Antzokira ikustera juaten zaion gazte horrek arranguratzen nau.

–Ez zeit arranguratu, James –errespondatu zio Vane andreak–. Gizon gazte anis maitemintzen dire aktoreeki...

–Baña harren izena ere ez dakigu, ordea –erran zue Jamesek, hasarre–. Laster itxasgizona izain naiz eta denboraldi luzeak emain tut Ingalaterratik kanpo, ama; Sibyl zaindu behar duzu.

Sibyl itzuli zenean, bi anai-arrebak Hyde Parkera joan zire ibillaldi baten egitera. Parkea beterik zego; jende anis zebille berean. Jendea oñes zebille edo, bertzenas, zalgurdi ederretan zihoaze xarririk.

Sibyl oso pozik zego.

–Uste dut ezi Australian bizimodu zoragarria izain duzula, James. Abrastuko zarela uste dut. Eta gañera...

Nesakoa orduan ixildu ze, James ez baizekio entzuten ari.

–Nor da ikustera etortzen zaizun gizon hori? –galdegin zue mutilak orduan–. Nor da? Ez dakizu harren izena, ezta?

–Printze Xarmagarri deitzen diot. Eta maite dut. Beti izain dut maite...

–Ez dakizu harren izena –errepikatu zue Jamesek, hasarre–. Gizon gaztea eta abratsa da... eta ez da zureki ezkonduko. Eginen duena da...

–Oi, begira! Begira, hor dago! Zalgurdi hortan! –oihu egin zue Sibylek, bat-batean.

Parkearen bertze aldetik zihoaien zalgurdi bat señalatu zue. Jamesek parke loretsuko landare artetik begiratu zue. Baña, orduan, bertze zalgurdi bat zalui[90] pasatu ze bi anaiarreben aitzinetik. Jamesek ezin izan zue printze xarmagarria ikusi.

–Oi, ene maitea! –erran zue Sibylek–. Zuk hura ikustea nahi nue.

–Nauronek ere ikusi nahi nue, bada –errespondatu zio anaiak–. Izan ere, hilen dut noizbait minik iten badizu.

Hitz haiek entzutean Sibyl bere anaiareki hasarratu ze, baña laster oroitu ze hamasei urte bertzerik ez zuela. Mutila baño ez ze. Ioiz ez ze maitemindurik egon.

–Ez zindioke kalterik inen nik maite duten gizonari, ezta, James? –galdegin zue nesakoak.

–Ez –erran zio mutilak azkenean–. Ez diot kalterik inen, zuk maite baduzu.

–Nik beti maite izain dut nere Printze Xarmagarri hori –erran zue Sibylek–. Eta harrek beti maiteko nau ni.

Parkeko ibillalditxoaren eta nesakoaren alaitasunaren eragines, James pixka bat lasaitu ze. Baña, etxera itzultzean, berris ere bakarka hitz egin zue bere amareki.

–Jaun zintzoa da, ezta?, Sibyleki maitemindurik dagona –galdegin zue modu erretorikoan–. Edo harlakoa dela dio. Eta aixkide onak izain tuela ere pensatzen dut. Oso arranguratuik noaia.

–Egon zeit lasai, seme –xuxurlatu zue Vane andreak, begiak heze eta eskuak dardaraka–. Sibylek ama doke hemen.

Mutila hunkitu ze. Amari hurbildu zekio eta, belauriko xarririk, apatu zue[91].

–Orai juan beharra doket –erran zue azkenik–. Agur. Ez atzendu orai alaba bakarra dokezula zaintzeko, eta, siñesta zadazu, gizon horrek Sibyli minik iten barinbadio, nor den xakin, harren bila juan, eta txakur baten moduan hilen dut. Zines.

Agurraren ondoan, Jamesek ekipajea jautxi[92] zue. Zalgurdiko gidariareki prezioas eztabaidatu behar izan zue. Amak bere musuzapi gorria idarrosi[93] zue leihoan, zalgurdia abiatu zenean. Semearen mehatxuas ez zio iori deus erran. Egunen batean, hartas oroitzean, guziek barre eginen zutela sentitu zue.

# SEIGARREN KAPITULUA

–Berria entzunen zinduela pensatzen dut, Basil –erran zio Lord Henryk arratsalde hartan Hallwardi, hura Bristol Hotelean gorderikako jankanbran[94] agirtu zelarik; hiru lagunendako bazkaria izanen zute.

–Ez bada, Harry –errespondatu zue artistak, kapela eta berokia zerbitzariari eman artean–. Zer berri da hori?

–Dorian Grayk ezkon-hitza eman du –xakinarazi zue Lord Henryk, hitz egin bitartean lagunari begira.

Hallwardek bekainak altxatu zitue.

–Dorian Grayk ezkon-hitza eman duela? –galdegin zue bizikiro–. Ezineskoa da!

–Egia da, guzis.

–Nori eman dio, ordea?

–Nesako aktore txipi bati.

–Baña zentzugabea lizake, horlako norbaiteki ezkontzea.

–Nesako horreki ezkon dadien nahi baduzu, erran zaiozu horixe, Basil. Seguru ezi orduen harlaxe inen duela. Gizon batek tutulukeriarik iten duenean, beti izaten da arraziorik noblenarengatik.

–Nesako hori ona izatea espero dut, Harry.

–Tira, ona baño hobea da... ederra denes geros –erran zue Lord Henryk–. Dorianek ederra dela dio, eta normalean arrazio izaten du gauza hoietan. Zure erretratuak lagun hurkoaren edertasuna entendatzen erakutsi dio. Egun ikusiko dugu, gazte horrek ez badu afera atzendu, berere.

–Baña nola ezkon daike Dorian aktore bateki, Harry? Hori zentzugabekeria! –erran zue margolariak ozen, kanbran harara eta honara ibilli artean, ezpainari hozka egiteareki batio.

–Dorian Gray Julietaren papera jokatzen duen aktore txipi bateki maitemindu da. Berareki ezkontzeko eskatu dio. Zergatik ez bada? Mesalinareki ezkonduko balitz bejain interesgarria da hori. Badakizu ez naizela ezkontzaren defendatzallea. Ezkontzaren desabantaila nagusia zera da: ezkondua altruista egiten duela. Eta jende altruistak ez doke xarmarik. Dorian Grayk nesako hori bere emazte itea espero dut, sei hilabetes sutsuki eta bizikiro maite izatea eta, bat-batean, bertze pertsona batek liluraturik sentitzea.

–Erran duzun hitz bat bera ere ez duzu pensatzen, Harry. Badakit ez duzula nahi Dorian Grayren bizitzea honda dadien. Erakutsi nahi duzuna baño anises ere hobea zare.

Lord Henryk barre egin zue.

–Guzioi bertzees hain ongi pensatzea agratzeko arrazioa da guziok gaure buruaren beldur garela. Baña hemen dator Dorian. Berak nik baño yago erran ahal izain dizu.

–Ene Harry maitea, ene Basil maitea, zoriondu behar nauzue! –erran ziote gazteak, bere kapa kendu eta haiei eskuak ertzitzen zizkioten artean–. Sekula ez naiz honen zoriontsu

egon. Badakit, noski, ezi bat-batean izan dela... gauza on guziak dire bat-batekoak. Eta, halarik ere, uste dut hau bizitze guzian bila ibilli naizena dela.

–Zu beti oso zoriontsua izatea espero dut, Dorian –erran zio Hallwardek–. Baña zergatik ez dirazu deus erran? Harryri erran diozu, ordea.

–Egia erran, ez dago kontatzeko anis –erran zue Dorianek–. Bart ene nesakoa berris ikustera juan niza. Laizki ongi antzeztu zue, mutil jantzirik. Gero, elkarreki xarririk gindaudenean, harren begietan begirada liluragarria ikusi nue. Lehenago ioiz ikusi bageko zerbait ze. Apa eman gindio[95] elkarri. Ezin dizet adierazi zer sentitu nuen momentu hortan.

–Egun ikusi duzu? –galdegin zue Lord Henryk.

Dorian Grayk burua idarrosi zue.

–Shakespeareren basoan utzi dut. Harren lorategian aurkituko dut.

–Eta noiz erabili zindue, zehazki, «ezkondu» hitza, Dorian? Eta zer errespondatu zue nesakoak? Benturas guzis atzendu zekizu[96] hori.

–Ene Harry maitea, ez ze negozio-batzarrea izan. Maite nuela erran nio. Mundu guzia ez da deus enetako, harrekin konparatuik.

–Baña, ene Dorian maitea...

Hallwardek esku bat xarri zue Henryren besoan.

–Ez segi, Harry. Mindu duzu Dorian. Bera ez da gañerako gizonak bejalakoa. Ioiz ez lioke iori zoritxarrik sortuko.

Lord Henryk mahaiaren bertze aldera begiratu zue.

–Dorian ioiz ez da eneki mintzen –errespondatu zio lagunari.

Dorian Grayk barre egin zue.

–Ez dago txujenduko zaituenik, Harry; baña ez zaida axola. Sibyl Vanereki nagonean, erakutsi dirazun deustan ez dut siñestatzen. Zure teoria erakargarri eta izugarri hoiek guziak atzeten tut –adierazi zue.

–Eta zein dire hoiek...? –galdegin zue Lord Henryk, entsalada pixka bat hartu artean.

–Bada, bizitzeas, maitasunas eta plazeras dozkezunak. Zure teoria guziak, Harry.

–Plazera da teorizatzea mereji duen gai bakarra –errespondatu zue lordak, bere agots goxo eta musikalareki–. Zoriontsuak garelaik, beti gaude ongi, baña ongi gaudelaik ez gare beti zoriontsuak.

–Badakit zer den plazera –erran zue Dorian Grayk orduan–. Norbait gurtzea da.

–Egiaski hori hobea da, gurtua izatea baño.

–Harry, ikaragarria zare! Ez dakit zengatik zaren nere gustukoa. Goazen antzokira. Sibyl ikusten duzenean, eritzis aldatuko duze.

Xaiki zire eta berokiak xarri zituzte. Margolaria ixilik eta pensakor zego. Laizki goibel zego. Ezin zue ezkontze hura jasan eta, halarik ere, agi zaizken[97] bertze gauza batzuk baño hobea iduritzen zekio. Dorian Gray ioiz ez ze berarendako berris izanen garai batean izan zena. Bizitzea bien artean tartekatu ze. Zalgurdi batera igan ze, Dorianek eta Lord Henryk hartu zutena bi xarlekukoa baize. Begiak ilundu zezkio. Zalgurdia antzokira allagatu zenean, hanbat urte zaharrago sentitu ze.

# ZAZPIGARREN KAPITULUA

Honegatik edo hargatik, antzokia gau hartan guzis beterik zego. Barruan bero handia zego, eta gazte batzuek elkarreki oihuka hitz egiten zute antzokiaren alde batetik bertzera. Emazte batzuek barre-algara handiak egiten zituzte eta haien agotsak izugarriak zire. Jendeak laranjak jaten zitue eta ekarririkako botiletatik edaten zue.

–Hau lekua zure ametsetako nesakoa kausitzeko! –erran zue Lord Henryk.

–Bai! –Dorian Grayk orduan–. Hementxe arkitu nue bada. Julietaren papera jokatzen ikusten duzunean, hau guzia atzenduko duzu. Ikusle arrunt habek[98] itxuraldatzen dire nere nesakoa agirtzen delaik.

–Aditzen dut diozuna, Dorian –erran zue margolariak–. Nik nesako horren baitan siñestatzen dut. Zuk maite duzun edonor nahitaez izain da zoragarria.

–Esker mille, Basil –errespondatu zio Dorian Grayk–. Baniakie entendatuko ninduzula. Minutu batzuk barru, nik bizitzea eskainiko dioten nesakoa ikusiko duze. Nere baitan dagon on guzia eman dioten nesakoa.

Ordu laurden geroago Sibyl agirtokian agirtu ze. Bai, egias zoragarria ze harri begiratzea, pensatu zue Lord Henryk. Basil Hallward txutirik xarri ze eta txalo egin zue. Dorian Gray xarririk gailtu ze, ametsetan bejala, harri begira.

–Xarmagarria! Xarmagarria! –xuxurlatu zue Lord Henryk.

Antzezpena hasi ze. Nesakoak hitzek berarendako zentzurik ez balute bejala erraten zitue. Ez ze urduritasuna. Bertzerik gabe, gaizki antzezten ari ze. Harren antzezpenik negargarriena ze hura.

Minutu batzuk geroago txistuak entzuten hasi zire, eta Lord Henryk Hallwardi xuxurlatu zio:

–Dudarik bage ioiz ikusi duten nesakorik ederrena da. Baña laizki aktore txarra da.

Dorian Gray zurbil xarri ze harri begira. Nahasirik zego eta larritasunak jorik. Nesako aktorea hain desberdin agiri ze[99] gau hartan! Ez ze Julieta, baizik ere[100] aktore txar bat, Shakespeareren hitzak aditzen ez zituena. Ikusleak, aspertzen ari zirenes geros, ozenkiro hitz egiten hasi zire. Nonbait, hartas goartzen ez zen bakarra aktorea bera ze.

Lord Henryk, bere xarlekutik altxaturik, berokia xarri zue.

–Nesakoa zines polita da, Dorian –erran zio lagunari–, baña ez daki antzezten. Goazen hemendik.

–Ni azkena artio gailtuko naiz –errespondatu zue gazteak, agotsa hotz–. Egias sentitzen dut zeri [101] arratsaldea galarazi izana, Harry. Barkazio eskatzen dizet bioi.

–Ene Dorian maitea, benturas Vane andereñoa eri egon da –erran zue Hallwardek orduan–. Bertze ilunsarreren batean itzuliko gare.

–Zatoz klubera Basileki eta eneki. Zigarroak erre eta Sibyl Vaneren edertasunagatik edain dugu[102]. Zer yago behar duzu?

–Zoaz behingos, Harry –erran zue gazteak ozen–. Bakarrik egon nahi dut. Ez duze ikusten bihotza urratuik nagola?

Glarima beroak atra zire harren begietatik Lord Henry eta Hallward antzokitik atra zirenean.

Antzezpena bukatu zelarik, Dorian Gray lasterka joan ze Sibyl Vane bere aldakanbran ikustera. Nesakoa hantxe zego, bakarrik, aurpegian zorion mugagabea.

–Zein gaizki antzeztu duten gaur, Dorian! –erran zue.

–Guzis gaizki! –errespondatu zio gazteak, nesakoaren aitzinean txutirik–. Ikaragarria izan da. Eri zaude? Zengatik sortu dirazu horlako sufrimentua?

Nesakoak irribarre egin zue.

–Dorian, ez duzu entendatzen?

–Entendatu, zer? –gazteak, hasarre.

–Zergatik antzeztu duten horren gaizki gaur. Zergatik antzeztuko duten hones geros beti gaizki. Zergatik ez duten ioiz berris ongi antzeztuko.

–Eri zaudela uste dut. Eri zaudenean, ez zinduke antzeztu behar. Nere lagunak guzis aspertu dire. Naurau ere aspertu naiz.

–Dorian, Dorian –erran zue nesakoak bizikiro–, zu izautu aitzin, antzeztea ene bizitzeko gauza garrantzisko bakarra ze. Antzezlan guziak egiaskoak zirela pensatzen nue. Gaur, bizitzean lehenbisko aldis, maitasunarendako antzezten ari nizala[103] ikusi dut. In banezake ere, profanazioa lizake maiteminduik antzeztea. Elkarri diogun maitasuna egiasko maitasun bakarra da. Zuk ikusarazi dirazu hori! Eraman nazazu zureki hemendik urruti, Dorian! Ez dut yago aktorea izan nahi.

Mutila besaulkian xarri ze eta burua alde batera makurtu zue.

–Ene maitasuna hil duzu –xuxurlatu zue.

Orduan berris txutitu eta ate aldera ibilli ze.

–Jangoiko maitea! Zer ero izan naizen zu maitatzean! Zer tutulu izan naizen! Orai deus ez zare enetako. Ez zaitut ioiz berris ikusiko. Ez dut zutas berris pensatuko. Ez dizut ioiz berris hitz inen.

Nesakoa zurbil-zurbila xarri ze.

–Ez zare serio ari, ezta, Dorian? Antzezten ari zare? –hasperen egin zue, eskua mutilaren besoan paratzeareki batio.

Gazteak bulka egin[104] zio.

–Ez ukitu ni gero! –oihu egin zio. Gero jiratu eta kanbratik atra ze.

Nesakoak ixilik negar egin zue, errespondatu gabe.

Dorian Londresko karriketan barrena ibilli ze gau guzian. Nora joan zen ere ez ziakie. Arkupe ilunetatik pasatu ze eta etxe guzis landerren ondotik. Agots latzeko eta barre zakarreko emazteek deitu ziote. Kilikonka[105] zebiltzan mozko-

rreki gurutzatu ze; tximino beldurgarrien moduan hitz egiten zuteneki. Nesako-mutiko bitxiak ikusi zitue ate ondoko eskalleretan ertzikiro[106] xarririk, eta patio itzaltsuetatik zetozen oihuak eta madarikazioak entzun zitue.

Argiastean[107] itzuli ze etxera. Bere kanbrara bidean liburutegia zeharkatu zuelarik, Basil Hallwardek egin zion erretratua ikusi zue. Urrats bat gibelera egin zue, harriturik, eta gero kanbran sartu ze. Berokia kendu, eta goatze[108] ondoan txutirik gailtu ze. Pixka bat geroago atzera egin, erretratura hurbildu, eta poliki aztertu zue. Ordu hartako argi motelean, harren aurpegia pixka bat aldatu zela iduri zue. Agoak orai itxura gaiztoa zue. Gauza anis bitxia ze, iondik ere.

Leiho aldera joan ze eta gortinak zabaldu zitue. Nahiz argiak kanbra itxuraldatu, aurpegiak bere hartan iraun zue. Iguzkiaren argitasunak agoa pixka bat ankerragoa ere ikustea eragin zue.

Berris ere bere kanbrara itzulirik, Lord Henryk oparitu zion ispilu txipia hartu zue. Bere aurpegia aztertu eta han ez zue iolako ankerkeria arrastorik ikusi. Zer agitzen ari ote ze?

Aulki batean astunki xarri eta pensatzen hasi ze. Batbatean, Basil Hallwardek margolana bukatu zuen egunean harren etxean erran zuenas oroitu ze. Bai, anis ongi oroitu ze. Erretratua zahar zedien eskatu zue, bera beti gazte egon ahal izateko. Baña gauza hoiek ezineskoak zire. Haietan pensatzea ere ikaragarria ze. Eta, halarik ere, hantxe zego erretratua, gaztearen aitzinean, ago ankerra erakusten.

Ankerra izan ote ze Dorian bera? Ez horixe. Zergatik pensatu Sibyl Vanes? Nesakoa orai deus ez ze mutilarendako.

Baña, erretratua? Zer erran zukea[109] hartas? Harren bizitzearen sekretua gordetzen zue, eta harren historiarena kontatzen. Bere edertasuna maitatzen erakutsi zio erretratuak. Bere arima gorrotatzen erakutsiko ote zio?

Bere burua salbatuko zue! Ez zue Lord Henry berris ikusiko; ez zitue ioiz berris entzungo teoria pozoitsu haiek, Basil Hallwarden lorategian ezineskoa denarekiko txirrinta beraren baitan sorrarazi zutenak. Sibyl Vanereki itzuliko ze, harreki ezkondu eta berris maitatzen saiatuko ze. Nesakoak gehiago sufritu zue berak baño. Nesako gaixoa! Harrekiko berekoia eta bihozgogorra izan ze. Elkarreki zoriontsuak izanen zire. Bizitzea, harreki, ederra eta garbia izanen ze.

Aulkitik xaiki, eta erretratua estali zue. «Ikaragarria da!», xuxurlatu zue bere baitan eta, lorategiko leiho eta ate aldera abiaturik, bereko atea iriki zue. Kanpoan belar gañean ibilli ze, sakonki hats hartzen zuela. Sibyl bertzerik ez zue buruan. Ihintzak bustirikako lorategian kantus zebiltzan txoriek loreei nesakoas hitz egiten ziotela[110] iduri zue.

# ZORTZIGARREN KAPITULUA

Eguerdia aspaldixko pasaturik zego idatzarri zenean. Zerbitzariak kikara bete te eta hanbat gutun eraman zizkio. Haietariko bat Lord Henryrena ze, goiz hartan eskuan emanik etxera eraman ondoan. Luzes begiratu zio gutun-azalari, baña gero gutuna alde batean utzi zue. Ioiz ez zue berris ikusiko Harry.

Liburutegira joan ze han alamortzatzeko; guzis zoriontsu sentitzen ze. Orduan leihoa zabalik ikusi zue eta erretratua estalirik. Egia izan ote ze guzia? Ala ametsa izan ze? Laizki ongi oroitzen ze, ordea, ago anker hartas. Hastean ez zue margolana berris ikusi nahi izan. Orduan Basiles pensatu zue. Zer erranen ote zio Basili? Harrek, benturas, koadroa berris ikusi nahi izanen zue.

Dorian Grayk joateko manatu zio zerbitzariari eta ate guziak ertxi zitue. Gero erretratua estaltzeko erabilirikako oihala kendu, eta aurre-aurrean ikusi zue bere burua. Ezin zue entendatu, baña egia ze. Erretratua itxuraldaturik zego. Gaztea izuturik gailtu ze.

Dorian biziki gaizki sentitu ze eta anis ahalketurik. Ez ziakie zer egin ez zer pensatu. Sibyleki berris atsegina izan

nahi zue eta harreki ezkontzea erabaki zue. Horla, erretratuak berris ere islatuko zitue gaztearen ontasuna eta adeitasuna. Mahaian xarri ze eta gutun luze bat idatzi zio Sibyl Vaneri. Maitasun gutun zoragarria idatzi zio, agitu zenas damuturik zegola erranes eta berareki ezkontzeko eskatus. Gutuna idazten bukatu zuelarik, berris ere ongi sentitu ze.

Bat-batean norbaitek liburutegiko atea jotzen zuela entzun ze; Lord Henryren agotsa ere bai, kanpotik deika.

–Ene mutil maitea, zu ikusi beharra doket. Utz zadazu berla sartzera, mertxedes.

Ez zio errespondatu eta geldi egon ze. Ez zue Lord Henryreki hitz egin nahi. Ateko kolpeak areagotu zire. Hobe izanen ze lagunari sartzera uztea. Hasiko zuen bizimoduaren berri emanen zio. Txutitu ze, koadroa estali eta atea iriki zue.

–Egias sentitzen dut, Dorian –erran zio Lord Henryk sartu eta berla–. Baña ez duzu hortan gehiegi pensatu behar.

–Sibyl Vaneren kontuan, erran nahi duzu? –galdegin zue gazteak.

–Bai, noski –errespondatu zio Lord Henryk, xarri eta eskularru horiak kendu bitartean–. Ikaragarria da, baña zuk ez duzu errurik. Erran zadazu, harreki izan zinda ikuskizun ondoan?

–Bai.

–Seguru nengo ezi harla izan zela. Eztabaidan ibilli zindate?

–Bihozgabea izan niza, Harry... laizki bihozgabea. Baña orai guzia ongi dago. Damurik ez dut agitu den deustas. Kontu honek naure burua hobeki izautzen erakutsi dira.

–Ene, Dorian, hau poza zuk gauzak horla ikusteak ematen dirana.

–Ona izan nahi dut, Harry. Ez dut nere arima itxusterik nahi. Sibyl Vanereki ezkonduko naiz.

–Sibyl Vanereki ezkondu! –oihu egin zue Lord Henryk, guzis harriturik txutitzeareki batio–. Baña, ene Dorian maitea...

–Bai, Harry, badakit zer errain duzun. Ezkon-bizitzeas gauza ikaragarriak. Ez deus erran! Sibyl ene emaztea izain da!

–Zure emaztea! Dorian...! Ez zaizu heldu nere gutuna? Goizean idatzi dizut.

–Zure gutuna? A, bai, gogoan dut. Orañik ez dut irakurri, Harry.

–Orduan, orañik ez dakizu deus?

–Zertas ari zare?

Lord Henryk kanbra zeharkatu zue eta Dorian Grayren ondoan xarri ze. Gaztearen eskueri heldu ziote eta ertzitu zitue.

–Dorian –erran zio–, gutun hori Sibyl Vane hillik dagola errateko bialdu dizut.

Gaztearen ezpainetatik min-oihu latza atra ze, eta segituan jauzi batean txutitu ze.

–Hillik! Sibyl hillik! Ez da egia! Gezur izugarria da hori!

–Egia da, Dorian –erran zio Lord Henryk–. Goizeko egunkari guzietan agirtu da. Polizia galdines[111] ibilliko da, eta zuk eskandalu hontatik kanpo gorde behar duzu zaure izena. Honlako gauzek famatu iten dute gizona Parisen, baña Lon-

dresen hondamendia dire edozein jaunendako. Antzokian zure izena ez dutela xakinen pensatzen dut, ezta? Ez badakite, anis ongi. Iork ikusi zintue harren aldakanbrara juaten?

Pixka batean Dorianek ez zue errespondatu. Azkenean agots bitxis erran zue:

–Ez. Iork ez. Baña, polizia galdines dabillela erran duzu? Zer erran nahi du horrek? Sibyl ez zute bada...? Oi, Harry, hau ikaragarria da!

–Seguru nago ez dela istripua izan, nahiz ofizialki baietz erran duten. Nesakoak antzerkian erabiltzen diren gai ikaragarri hoietako bat hartu zue.

–Harry, izugarria da! –oihu egin zue gazteak–. Sibyl Vane nauronek hil dut.

–Zaurorrek ez duzu hil; bere buruas bertze in du. Maite baizintue suizidatu da. Gauza tristea da, noski, baña ez du zerikusirik zureki. Zatoz gero eneki afaltzera, eta ondoan operara juain gare kantari handi baten ikustera.

–Ez dut ganibetareki harren txintxurra[112] ebaki, baña nik hil dut, bai. Eta, halarik ere, arrosak lehen bejain maitagarriak dire. Txoriek orañik ere zoriontsu kantatzen dute ene lorategian. Eta gaues zureki afalduko dut eta operara juain gare. Bai zoragarria dela bizitzea! Nik idatzirikako lehen maitasun-gutun sutsua hillikako nesako batendako izan da. Baña zengatik ezin dut tragedia hau nahi nuken bertze sentitu? Ez dut uste bihozgabea naizenik, zuk bai?

–Azken hamaborzaldian zentzugabekeria gehiegi in duzu bihozgabea izateko, Dorian –errespondatu zue Lord Henryk, irribarre ezti eta triste bateki.

Gazteak zeñu zakarra egin zue.

–Ez zaida agratzen azalpen hori, Harry –erran zue–, baña pozten nau bihozgabea naizenik zuk ez pensatzeak.

–Ene Dorian maitea –errespondatu zio Lord Henryk–. Ez zekizu konbeni Sibyl Vanereki ezkontzea. Ez, ez... horlako ezkontzak ioiz ez dire ongi atratzen. Senarra berla goibeltzen eta aspertzen da. Hori bai, emaztea adikor tratatzen segitzen du. Beti gare adikorrak axola ez zaigun jendeareki. Baña emaztea berla xabetzen da senarra asperturik dagola. Eta orduen bera ere itxusten da, edo bertze emazte batzuen senarrek ordaindurikako kapela garestiak janzten hasten da.

–Ioiz ez da berris bizirik egoin –xuxurlatu zue gazteak, aurpegia esku artean xarririk.

–Ez, ioiz ez da bizirik egoin. Bere azken papera jokatu du. Egiasko bizitzeareki lehenbisko bizipena izan bejain laster zapuztu da, eta horren ondorios hil da.

Ixilik gailtu zire. Arratsaldea ilunsarre bihurtzen ari ze kanbran. Ixilik eta zilarresko jantzirik, itzalak lorategitik sartzen zire. Gauzen koloreak desagirtus zihoazen.

Aldi bates harla egon ondoan, Dorian Grayk begiak goititu zitue.

–Nolakoa naizen azaldu dirazu. Zein ongi izautzen nauzun! Baña ez dugu agitu denas berris hitz in behar. Esperientzia zoragarria izan da. Hori da guzia. Orai, jantzi beharra doket, Harry. Nekatuegi nago deus jateko, baña gero zureki elkartuko naiz operan.

Lord Henryk atratzean atea ertxi zuenean, Dorian lasterka joan ze erretratua zegon lekura eta hura estaltzen zuen

oihala kendu zue. Ez, margolanean ez zego aldaketa gehiagorik. Sibyl Vaneren heriotzearen berri izan zue, gazteak berak izan baño lehen. Begietatik glarimak atra zezkio nesakoas oroitzean. Haiek lehortu, eta berris begiratu zio erretratuari.

Zirt edo zart hautatu beharra zegola sentitu zue. Edo hautatzea yadanik eginik zego? Bai; bizitzeak harren ordes erabaki zue. Betiko gaztetasuna, txirrinta mugagabea, ezkutuko plazerak, pozaldi sutsuak eta hoiek baño bekatu sutsuagoak... gauza hoiek guziak izanen zitue. Erretratuak ahalkearen zama bereganatuko zue, eta kito.

Berris estali zue koadroa, hura egin bitartean irribarres, eta lokanbrara joan ze, ordurako zerbitzaria kanbran etxedeten baizego. Ordubete geroago operan zego, eta Lord Henry harren xarleku ondoan aurrera makurturik zego adeitsu.

# BEDRATZIGARREN KAPITULUA

Biharamunean, etxeko liburutegian alamortzatu artean, zerbitzariak Basil Hallward lagundu zue kanbraraño.

–Bizikiro pozten naiz zu arkitzeas, Dorian –erran zue–. Bart deitu nizu, baña operan zindaudela erran zirate[113]. Nik, noski, baniakie ezi hori ezineskoa zela. Gau ikaragarria eman dut, tragediak bata bertzearen ondoan agituko ote ziren beldurres. Hitzik ez doket kontu honek guziak nolako mina sortzen diran adierazteko. Nesakoaren ama ikustera juan zinda? Emazte gaixoa! Zer erran zue agitu denas?

–Ene Basil maitea, ez dakit zer erran ote zuen –erran zio Dorian Grayk. Oso aspertua iduri zue–. Operan nengo.

–Operara juan zinda? –galdegin zio Hallwardek, poliki hitz egines–. Operara juan zinda Sibyl Vane hillik zegolaik?

–Aski da, Basil! Ez dut entzun nahi! –oihu egin zue Dorianek, txutitzeareki batio–. Ez duzu horlako gauzes hitz in behar. Egina eginik dago eta juana juanik dago.

–Juana erraten diozu atzoko egunari? Dorian, hau ikaragarria da! Zerbaitek guzis aldatu zaitu. Nere lankanbrara erretratua egiteko posatzera etortzen zen gazte hura bera iduri duzu. Baña orduen umila eta amultsua zinda. Bihotzik

ez bazindeuka bejala hitz iten duzu. Hau guzia Harryren eragina da. Ikusten dut, bai.

Gaztea leihora joan ze eta aldi bates kanpora begiratu zue, lorategira.

–Harryk gauza anis erakutsi dira, Basil –erran zue azkenean–. Zuk, ordea, naure edertasuna maitatzen soilik erakutsi dirazu.

–Egiaski sentitzen dut, Dorian.

–Ez dakit zer erran nahi ote duzun, Basil –erran zio lagunari, jiratzeareki batio–. Ez dakit zer nahi ote duzun. Zer nahi duzu?

–Lehen margotzen nuen Dorian Gray hura nahi dut –argitu zue margolariak, betilun.

–Basil –erran zio gazteak, hurbildu eta soñegi gañean eskua paratzen ziola–, beranduegi etorri zare. Atzo, Sibyl Vanek bere buruas bertze in zuela entzun nuenean...

–Bere buruas bertze! Ene jangoikoa! Ez dago dudarik? –galdegin zue Hallwardek, asaldaturik.

–Ene Basil maitea! Ez duzu pensatuko bada, istripua izan denik? Xakina bere burua hil duela.

Bi gizonetatik helduenak eskuak aurpegian xarri zitue.

–Izugarria da! –erran zue umil.

–Ez –errespondatu zio Dorian Grayk–, deus izugarririk ez dago hortan. Gure garaiko tragedia erromantiko handienetariko bat da. Badakit harrigarria zaizula nik honla hitz itea. Ez zare goartu nola aldatu naizen. Ni mutil gaxtea niza

izautu ninduzulaik, eta orai gizona naiz. Txirrinta berriak dozket, pensamentu berriak, ideia berriak...

–Baña, Dorian...

–Ezberdina naiz, baña ez duzu horrengatik ni gutiago maitatu behar. Aldatu naiz, baña ene laguna izaten segitu behar duzu. Xakina da Harry laizki maite dutela, baña badakit zu hura baño hobea zarela; beldur handiegia diozu bizitzeari, baña hobea zare. Eta zein zoriontsuak gindan elkarreki gindaudenean! Ez nazazu utzi, Basil, eta ez eneki hasarretu. Naizen bejalakoa naiz.

Margolaria goibel sentitu ze modu bitxian. Dorian Gray oso garrantziskoa ze berarendako. Gazteak harren artea aldatu zue. Benturas, harrek Sibyl Vanes erranikako hitzak animoaldi pasakor batek sortuak izanen zire. Ontasun handiko gaztea ze.

–Tira, Dorian –erran zue artistak, irribarre tristea ezpainetan–, ez dut zureki gai ikaragarri hontas ioiz berris hitz in nahi. Hori bai, zure izena iolako eskandalutan nahasirik ez agirtzea espero dut. Poliziak zu ikustea eskatu du?

Dorianek burua mogitu zue.

–Nere izena ere ez dakite –errespondatu zio lagunari.

–Sibylek ez ziakie zure izena?

–Bataio izena baizik ez, eta seguru nago ez ziola iori erran. Bere ahaidegi[114] ni Printze Xarmagarria nizala erraten ziote[115]. Polita ze harrek hori itea. Sibylen erretratu bat in behar dirazu, Basil. Harren oroigarri iduki nahi nuke, elkarri emanikako apa[116] haien oroitzea baño zerbait yago iduki zadan.

–Saiatuko naiz zerbaiten iten, Dorian. Baña nere lankanbrara itzuli eta berris ere enetako posatu behar duzu. Zu bage ezin dut lehen bejain ongi lan in.

–Ezinko[117] dut ioiz berris zuretako posatu, Basil. Ezineskoa da! –erran zue gazteak bizikiro.

–Ene mutil maitea, zer tutulukeria da hori gero? –erran zio Hallwardek ozenkiro–. Ez zaizu agratu in nizun lana? Non dago? Zergatik estali duzu? Utz zadazu ikustera. Nik in duten gauzarik hoberena da. Ez dakit nola uzten diozun zerbitzariari nere lana horla ezkutatzera. Sartu naizelaik, kanbran zerbait aldaturik zegola goartu naiz.

–Ez du ene zerbitzariak estali, Basil. Ez duzu pensatuko nik kanbra atontzen uzten diotenik. Nauronek estali dut. Argiak biziegi jotzen zue erretratua.

–Biziegi! Ez, bada; argia hemen egoki-egokia da. Utz zadazu ikustera.

Hallward erretratua zegon lekura joan ze.

Oihu lazgarria atra ze Dorian Grayren ezpainetatik, eta lasterka joan ze lagunaren eta artelan estaliaren artean paratzera.

–Basil, ez duzu ikusi behar! Ez dut nahi ikus zazun!

–Ezin ote dut, bada, naure lana ikusi? Egias ari zare? Zergatik ez dut ikusi behar? –galdegin zue Hallwardek barres.

–Zaurean segitu eta ikusten baduzu, Basil, zines erraten dizut ez dizutela ioiz berris hitz inen. Oso serio ari naiz.

Hallwardek harriturik begiratu zio Dorian Grayri. Ioiz ez zue lehenago harlako itxurarik izan. Gaztearen aurpegia zurbil zego, eta hasarre. Dardaraka ari ze.

–Dorian!

–Ez deus erran!

–Zein da, ordea, arazoa? Ez dut ikusiko, ikus zadan ez baduzu nahi –erran zue hozkiro, leiho aldera ibilli artean–. Baña zentzugabea da naure lana ikusi ezina, urrian[118] Parisko erakuslekuan xartzeko asmoa dutenean.

–Erakuslekuan? Erakuslekuan xarri nahi duzu? –galdegin zue Dorian Grayk.

Beldur izugarria bere izate guzias xabetzen zela sentitu zue. Munduak bere sekretuaren berri izanen ote zue? Jendea gaztearen bizitzearen misterioari begira egonen ote ze? Ezineskoa ze. Zerbait egin behar zue, nahiz ez xakin zer.

–Bai, George Petitek urriko hilabetean ene margolanik onenak erakusgai paratuko tu. Baña ez arranguratu, hilabetes baizik ez da izain.

Dorian Grayk esku bat pasatu zue aurpegitik. Bero eta heze zeukie. Peril handi bati aurre egiteko zorian zegola sentitu zue.

–Duela hilabete ioiz ez zinduela erakutsiko erran zindira[119] –erran zue oihus–. Zengatik aldatu duzu eritzis?

Bat-batean gelditu ze eta begi zines ankerreki begiratu zue. Lord Henryk erran zion zerbaites oroitu ze: «Galdin zaiozu Basili zergatik ez duen erretratua erakutsi nahi. Behin arrazioa erran zira[120], eta oso kontu bitxia da». Bai, benturas Basilek ere sekreturen bat idukiko zue. Galdegin zio, hura xakiteko ahaleginean.

–Basil –erran zue, harrengana hurbildu eta txujenkiro aurpegira begiratzeareki batio–. Guziok dozkegu sekretuak. Zein arrazio zindue nere erretratua ez erakutsi nahi izateko?

–Dorian, hori erraten barinbadizut, benturas orai naizena baño desatseginagokoa izain naiz zuretako. Eta barre inen dirazu. Nik zure erretratua ioiz ez ikustea nahi barinbaduzu, begiratu ere ez dut inen. Zaurori hor egoin zare beti, begiratzeko. Zure aixkidetasuna enetako garrantziskoagoa da koadro baten erakustea baño.

–Ez, Basil, erran behar dirazu –eskatu zue Dorian Grayk. Harren beldurra joana ze. Orai Basil Hallwarden misterioa xakin bertzerik ez zue nahi.

–Dorian –erran zio margolariak, zoriontsua ez denaren itxuran–. Deus arrarorik ikusi duzu margolan hortan?

–Basil! –gazteak bizikiro, lagunaren aitzinean txutirik, begiak basati.

–Badakit baietz. Dorian, izautu zinturan momentu beretik, zure nortasunak agiriko[121] eragina izan du ene baitan. Gurtu zaitut, bai. Edonoreki hitz iten zinduela ere, jeloskor xartzen niza. Nauretako osorik nahi zintura[122]. Zureki nengonean baño ez niza zoriontsua. Eneganik urruti zindaudenean ene artean egoten segitzen zindue. Xakina da ioiz ez nizula horren guziaren berri eman. Ezineskoa izain ze. Ezin izain zindue entendatu; nauronek ere nekero[123] entendatzen nue naure burua.

–Basil...

–Ez, ez hitz in. Orduen erran ez nizuna erran behar dizut orai: zure erretratua modu zoragarrian margotzea erabaki nuela. Zureganako ene sentimentua erretratu hortan xarri

nue. Hortas, koadroa ioiz ez erakustea erabaki nue. Harryri erran nio eta barre in zue. Erretratua bukaturik zegonean, eta harreki bakarka xarri nizanean, arrazio nuela sentitu nue... Gero, berris, benturas tutulua izan nizala pensatu nue, eta Parisko eskaintza hori heldu zelaik... Baña orai ikusten dut ez dugula erakuslekura eraman behar.

Dorian Grayk sakonki hats hartu zue. Bere onera itzuli ze, zurbiltasuna galdurik, eta irribarre txipia egin zue. Perila joan ze eta oraikos[124] salbu zego. Nolako istorio tristea kontatu zion Basilek! Noizbait lagunen baten nortasunak harlako eraginik izanen ote zue beraren baitan? Lord Henryk egias periltsua izateko xarma zeukie, baña hori ze guzia.

–Zoragarria iduritzen zaida, Dorian –erran zue Hallwardek–, zuk erretratuan hori ikustea. Egias ikusi duzu?

–Zerbait ikusi dut, bai, margolanean –errespondatu zio lagunak–; laizki arraroa iduritzen zaidan zerbait.

–Tira, yadanik ez zaizu axola begiratutxo bat iten barinbadiot?

Dorianek burua mogitu zue.

–Ez dirazu horlakorik eskatu behar, Basil. Ezin dizut koadro horren aitzinean xartzera utzi.

–Egunen batean utziko dirazu, ezta?

–Ioiz ez.

–Benturas arrazio izain duzu. Eta orai agur, Dorian. Bizitzean ene artean eraginik izan duen pertsona bakarra izan zare. Baña ez dakizu zenbat kostatu zaidan erran dizuten guzia erratea.

–Ene Basil maitea –Dorianek orduan–, zer da erran dirazuna? Anis gurtu ninduzula, bertzerik ez. Hori lausengua ere ez da.

–Ez zeukie izan beharrik. Eta orai, guzia erran dizutenean, gañetik zerbait kendu dutela iduritzen zaida. Benturas ez ginduke ioiz hitzes adierazi behar miresten duguna.

–Ez duzu miresmenas hitz in behar. Tutulukeria hutsa da. Zu eta biok lagunak gare, Basil, eta beti izain gare lagunak.

–Zuk Harry dokezu –erran zue margolariak, goibel.

–Oi, Harry! –barre egin zue gazteak–. Harryk egun guzia ematen du ezohiko gauzak erraten eta iten. Nauronek bizi nahi nuken bizimodua bizi du harrek. Baña ez dut uste Harryrengana joko nukenik arazorik baneuki. Nahiago nuke zuregana jo, Basil.

–Berris posatuko duzu enetako?

–Ezineskoa da! Badago zerbait ikaragarria erretratuetan. Beresko bizia dute. Baña, horren ordes, lantokira joan eta zureki tea hartuko dut.

–Ongi, agur beras. Egias sentitzen dut erretratua ikustera ez uztea. Baña entendatzen dut sentitzen duzuna.

Basil kanbratik atra zenean, Dorian Grayk irribarre maltzurra egin zue. Basil gaixoa! Egiasko arrazioaren arrastorik ere ez zeukie. Eta orai hobeki aditzen zitue margolariaren sentimentu basati eta jolaskorrak, eta atsekabe handia sentitu zue harrengatik. Bazego zerbait tragikoa, txirrintak usteldurikako aixkidetasun hartan.

Ezkilatxoa jo zue zerbitzariari deitzeko. Koadroa lehen baño lehen ezkutatu behar zue. Erokeria galanta egin zue bere lagunek hura ikusteko lekuan uztean.

# HAMARGARREN KAPITULUA

Zerbitzaria sartu zelarik, Dorian Grayk Leaf andrea etorrarazteko manatu zio, liburutegian ikusi nahi baizue.

–Goitiko ikaskanbra zaharra? –galdegin zio andreak–. Arrautses[125] beteik dago, ordea. Lehenik ongi garbitu behar dut.

–Ez dut garbitzerik nahi, Leaf andrea. Giltza da nahi dutena.

–Ongi, jauna; guzis arrautsestatuko zare kanbra hortan sartus geros. Bortz bat urte izain dire ez dugula iriki, zure aitona jauna hil zenetik edo.

Ez zekio agratu bere aitonas oroitzea. Oroitze txarrak zeuzkie bere familia guzias.

–Horrek ez du axolarik –errespondatu zio Leaf andreari–. Gela ikusi bertzerik ez dut in nahi... horixe da guzia. Idazu[126] giltza.

–Hemen duzu, jauna –erran zue emazte zaharrak–. Baña ez zare harara aldatuko bizitzera, ezta, jauna?

–Ez, ez –erran zue gazteak–. Esker mille, Leaf andrea. Juan zaizke.

Ordubete geroago bi gizon etxera heldu zire, erretratua lekus aldatzeko.

–Laizki astuna da, jauna –erran zue bi langilletariko batek, koadroa eskallera goiti eramatean.

–Bai, astuna izan behar duela pensatzen dut –erran zio Dorianek ikaskanbra zaharreko atea iriki bitartean; hantxe ezkutatuko zue bere arima ustelaren sekretua.

Ez ze kanbra hartan sartu mutiko txipia zenetik. Kanbra zabala ze hura, aitonak Dorian urruti idukitzeko prestatua. Haurtzutan[127] bizi izan zuen bakardade gorrias oroitu ze inguruan zeukiena ikusi artean.

Nahiz oroitzapen ikaragarris beterikako kanbra izan, segurua ere baze. Bereko giltza zeukie eta bertze ior ezin izanen ze hartan sartu. Erretratuko iduria han lasai zahartu eta itxustu ahal izanen ze. Hargatik arranguratu beharrik ez zue yadanik: iork ezinko zue ikusi. Berak ere ez zue ikusiko; ez zue bere arimaren usteltze ikaragarria ikusi beharrik izanko. Gaztea izanko ze beti... eta hori aski ze.

Bi gizonak joan zirenean, Dorianek ateari begiratu zio eta giltza poltsikoan sartu zue. Orai seguru sentitzen ze. Iork ez zio sekula gauza ikaragarri harri begiratuko. Bera izanen ze gauza ahalkegarri hura noizbehinka ikusiko zuen bakarra.

Liburutegira itzuli zelarik arratsaldeko bortzak ongi jorik zeude, eta han berean Lord Henryren goar bat kausitu zue, egunkari bateki eta liburu bateki batio. Hasperen egin zue eta, te pixka bat hartu ondoan, lagunaren goarra iriki zue. Gaueko egunkaria eta liburu bat bialdu zizkiola zioe; liburua interesgarria omen ze. Zortzietan klubean egonen zela xakinarazi zio. Egunkarian paragrafo bat zego arkatz gorris azpimarraturik, borzgarren orrialdean.

"NESAKO AKTORE BATEN INGURUKO IKERTZEA.- Egun goizean Danby jaun fiskalak Royal Theatren kausitu duten Sibyl Vane aktore gaztearen gorpuaren inguruko ikertzea egin du. Epaian adierazi denes, gazteak istripu bidesko heriotzea izan du."

Desatsegin handis, papera puskatu zue. Ondorean, kanbran honara eta harara ibilli ze, eta paper puskak hor nonbait egotzi zitue. Zein nazkagarria zen guzia! Eta zein ikaragarria gauzen errealitate itxusia!

Benturas, zerbitzariak artikulua irakurriko zue, eta zerbaiten susmoa hartzen hasirik egonen ze. Baña, halarik ere, zer axola zue horrek? Zer zerikusi zue, bada, Dorian Grayk Sibyl Vaneren heriotzeareki? Ez zue zertan beldurrik izan. Dorian Grayk ez zue hil.

Harren begirada Lord Henryk bialdu zion liburu horian pausatu ze. Intrigarik gabeko eleberria ze, pertsonaia bakarrekoa: frantzes bat bizitze guzian edertasun eta plazer bila ibilli zena, plazer onen eta txarren bila. Orduetan irakurri zue. Liburu ikaragarria ze hura, ideia bitxis eta amets periltsus betea. Argi faltak galarazi zion artio irakurri zue. Gero afaltzera joateko jantzi ze.

Ia gaueko bedratziak zire klubera allagatu zenean. Han Lord Henry bakarrik zegola ikusi zue, egonkanbra txipian xarririk, itxura batean laizki asperturik.

–Sentitzen dut, Harry –erran zio Dorianek–; baña, egias, errua zurea izan da. Bialdu dirazun liburu horrek harlako moduan liluratu nau, denbora hegan juan zaida.

–Bai, agratuko zekizula pensatu dut –errespondatu zio bere anfitrionak, aulkitik xaikitzeareki batio.

–Ez dut erran agratu zaidanik, Harry. Liluratu nauela erran dizut. Alde handia dago.

–A! Ikasi duzu hori? –xuxurlatu zue Lord Henryk.

Eta jankanbrara sartu zire.

# HAMEKAGARREN KAPITULUA

Urtetan eta urtetan Dorian Gray liburu harren eraginpean egon ze. Edo benturas txujenago lizake erratea ez zuela harren eraginpetik atratzerik nahi izan. Paristik luxusko bedratzi ale ekarrarazi zitue eta gero kolore desberdines azalestatu zitue, haietako bakoitza bat etor zedin egunean-eguneko bere animo-areki eta aldarte aldatzeeki, iola ere ez zenes geros haiek kontrolatzeko gauza. Liburuko heroia, izate erromantikoa eta zientifikoa bere baitan nahasirik zeuzkien paristar hura, Dorianendako bere buruaren aitzindaria edo harlako zerbait ze. Bai, liburuak bere bizitzea deskribatzen zuela iduritzen zekio; berak bizi izan baño lehen idatzirik edo.

Basil Hallward eta bertze anis liluratu zituen Dorian Grayren edertasunak bere hartan segitzen zuela iduri zue. Hartas erran-merran txarrak entzun zituztenek ere, hura ikusten zutelarik, ez zute harren desohorean siñestatzen. Munduko txirrinta artean garbi eta txahu[128] mantentzen zen gizonaren itxura zeukie, nahiz denbora etengabe aitzina joan. Berriketa zantarrak hura agirtu bejain fite ixiltzen zire. Harren aurpegiak erakusten zuen garbitasunak guziak ixilarazten zitue. Harren presentziak behin galdu zuten apaltasunas oroitarazi ziotela iduri zue.

Anis aldis egonaldi luzeak eta misteriotsuak egiten zitue hiritik kanpo eta, haien ondorios, lagunek, edo lagunak zirela ziotenek, susmo urrikigabeak[129] izaten zituzte. Egonaldi haietatik itzultzean, goiko kanbra ertxira igaten ze, beti ondoan zeraman giltzareki atea iriki eta, ispilu bat eskuan harturik, Basil Hallwardek margoturikako erretratuaren aitzinean egoten ze txandaka begira margolanaren aurpegi zahartu eta bihozgabeari eta ispiluak erakusten zion aurpegi fresko eta gazteari.

Biak hain ezberdinak izatea anis agratzen zekio. Egunetik egunera maitemin handiagoa zio bere edertasunari; gehiago eta gehiago interesatzen zekio bere arimaren endekatzea. Erretratuaren bekoskiko nahiz agoko zimur ikaragarriak aztertzen zitue, eta egias ez ziakie zek[130] harritzen ote zuen gehien: bekatuaren arrastoek ala zahardadearen arrastoek. Bere esku zuriak koadroan ikusten ziren esku zakar eta itxusien ondoan paratzen zitue, eta irribarre egiten zue. Halarik ere, gau batzuetan, lo egin ezinik bere kanbra lurrinestatuan edo bide galduko taberna landerreko goatze ziztrinean mozorroturik eta izen faltsua emanik begiak bildu ezinik egoten zelarik, bere arimaren hondatzea eta usteltzea izaten zue gogoan, aldi berean egiaskoa eta berekoia zen urrikia sentitzen zuela. Baña gau haiek oso guti zire. Lord Henryk Basilen lorategian Doriani sorturikako bizitzea ezautzeko xakin-mina etengabe hazten zela iduri zue. Xakin-min handia izateas gain, ikasten zuen naurrian gero eta bortitzago bihurtzen ze.

Halarik ere, gizarte harremanak ez zitue alde batera uzten. Neguan hilean behin edo bitan, eta denboraldian artzeazkenoros[131], bere etxea munduari zabaltzen zio eta musikaririk

famatuenak ekartzen zitue bere konbitatuen atseginerako. Eta zines anis zire, gazteen artean nausiki, Etongo nahiz Oxfordeko ikasle garaian amestu zuten pertsona eredua Dorian Grayren baitan ikusten zutenak.

Beldur ze, hala ere. Batzuetan Nottinghamshiren lagun eta aixkide kutunak –bere maila bereko gizon gazteak– abegitsu hartzen zituelarik, bat-batean konbitatuak utzi eta lasterka hirira itzultzen ze, bere begieki ikusteko iork ez zuela goitiko kanbrako atea bortxatu, eta erretratua bere lekuan ongi zegola. Zer agituko lizake ebatsiko balute? Hartan pensatze hutsak dardaraka paratzen zue izuikaras. Seguru aski, munduak orduan bere sekretuaren berri izanen zue. Benturas mundua yadanik susmoa harturik egonen ze. Izan ere, jende anis liluratzen bazue ere, bertze batzuek mesfidantza handia ziote. Kanpoan egiten zituen egonaldi misteriotsu haiek bide ematen zute, gizartean berris agirtzen zenean, gizonek agopean eta xuxurlaka hitz egin zaten, mespretxusko zeñua eginik alde batera egin zaten, edo harren sekretua xakiteko prestik baleude bejala begira zaioten. Dorianek, xakina, ez zue kasurik egiten; harren portaera adeitsua, mutiko txintxoaren irribarre xarmagarria, eta harren gaztetasun ederra –itxuras, ioiz bukatzen ez zena– berezko errespondatzea zire hartas entzuten ziren gezur beltzeri errespondatzeko.

Bere landetxe handi eta hotzeko galerian zeuzkien koadro iladen[132] artean noizbehinka ibiltzea agratzen zekio, bere arbasoen erretratuen ikusteko. Nolabait, modu misteriotsuren batean, gizon-emazte haien guzien bizitzeak bizi izan balitu bejala sentitzen zue.

Dorianen bizitzean harlako eragin handia izan zuen eleberri hartako heroiak ere, fantasia bitxi hura ezautu zue. Zaz-

pigarren kapituluan Tiberio nahiz Kaligula edo Domiziano zela idurikatzen zuela kontatzen zue. Eta, Heliogabalok bejala, aurpegia margotu zuela emazteen artean xartzeko eta haieki errokan errokatzeko[133], eta Kartagoko Ilargia ekarri zuela, Iguzkiareki ezkontza mistikoan batzeko.

Dorianek behin eta berris irakurtzen zue liburu zoragarri hura. Harren kapitulu guzietan nola-harlako erakarpen ikaragarria zego. Istorio haiek gaues irakurtzen zitue, eta egunes idurimena nahasirik idukitzen zue.

Errenazimentuan jendea pozoitzeko modu ikusgarriak izan zire: itxigirik utzirikako lastargieki[134], bordaturikako eskularrueki edo abaniko bateki. Dorian Gray, ordea, liburu batek pozoitu zue. Batzuetan, gaitza eta gaiztakeria edertasunas zeukien ikuskera gauzatzeko bide gisa ikusi zitue.

# HAMABIGARREN KAPITULUA

Azaroaren bedratzia ze, harren hogeita hemezortzigarren urtebetetze egunaren bezpera, beras. Lord Henryren etxetik atra, eta berera zihoaie oñes, gau hotz eta lañutsuan[135]. Grovesnor plazako eta South Audley karrikako eskiñan, gizon bat Dorianen ondotik pasatu ze lañuan. Biziki zalui zebille eta berokiaren lepoa goititurik zerama, bere lepoaren babesgarri. Dorianek hura ezautu zue: Basil Hallward ze. Beldur bitxiaren eragines Dorian zaluiago ibilli ze bere etxe aldera.

Baña Hallwardek ere ikusi zue. Dorianek gibeletik lasterka beregana joaten entzun zue. Berla, lagunaren eskua Dorianen beso gañean zego.

–Dorian! Hau kasualidade zoragarria! Bedratzietatik zure liburutegian egon naiz zuri etxedeten. Parisa noaia, gauerdiko trenean, eta juan aitzin zureki egon nahi nue. Gurutzatu garenean zu zindala pensatu dut, edo zure berokia gutienes. Baña ez nengo seguru. Ez nauzu izautu?

–Lañu honeki, Basil maitea? Grovesnor plaza ere ezin dut izautu. Nere etxea hor nonbait dagola uste dut, baña ez nago seguru. Penagarria da zu juatea, ez baizaitut denbora luzean ikusi. Baña laster itzuliko zarela pensatzen dut.

–Ez, sei hilabeterako noaia Ingalaterratik kanpo. Hara, zure ate aitzinera ellegatu gare[136]. Utz zadazu pixka batean sartzera. Zuri errateko gauza bat doket.

–Oso atsegina lizake hori, baña ez duzu trena galduko? –galdegin zue Dorianek, eskallerak igan eta giltzareki atea irikitzen zuen bitartean.

–Badut orañik denbora –errespondatu zio lagunak–. Trena ez da hamabiak eta laurden artio abiatuko, eta orañik hamekak dire. Damaten[137] guzia ene esku-maleta da, eta Victoria geltokira erraz ellega naike hogei minutuan.

Dorianek begiratu eta irribarre egin zio.

–Sar zeit, edo lañua itxeas xabetuko da.

Hallward Dorianen atzetik joan ze liburutegiraño. Alde batean, beheko sua su-egur ederres itxigirik zego, eta bertze aldean bi lanpara zeude.

–Zerbait edan nahi duzu? –galdegin zue Dorianek.

–Ez, eskerrik asko, ez dut bertze deus hartuko –erran zue margolariak, kapela eta berokia kentzeareki batio–. Eta orai, ene Dorian maitea, serio hitz in nahi dizut. Ez xarri aurpegi hori. Horla ezerrazagoa[138] zaida zuri hitz itea.

–Zer kontu dugu, bada? –Dorianek berris, besaulkian xarri artean–. Nitas ez hitz itea espero dut. Naure buruas nekatuik nago gaur. Bertze norbait izan nahi nuke.

–Zutas da, bada, hain txujen –errespondatu zio Hallwardek bere agots sakonareki–, eta nahitaez erran behar dizut.

Dorianek hatsa sakonki hartu eta zigarro bat itxigi zue.

–Egias ote da beharreskoa, Basil?

–Jendeak zutas erraten tuen gauza ikaragarries zer edo zer xakinen duzula pensatzen dut.

–Ez dut hortas deus ere xakin nahi. Laizki agratzen zaizkida bertze batzuen gaizpideak, baña nauronen ingurukoak ez zaizkida batere interesatzen.

–Jaun guziek dute interesa beren izen onean, Dorian. Zuk ez duzu nahi, noski, jendeak zutas erraterik ikaragarria eta ustela zarela. Baña nik zurrumurru hoietas zipitzik ere ez dut siñestatzen. Ezin dut hoietan siñestatu, ikusten zaitutelaik. Ustelkeria gizakion aurpegian islatzen den gauza da. Ez dago hura ezkutatzeik.

–Ene Basil maitea...

–Eta orai gutitan ikusten zaitut eta ez zare ene itxera etortzen. Jendea zutas laizki gaizki erranka entzuten dutenean, zer erran ere ez dut xakiten. Zergatik hil dute beren burua zure lagun izanikako hainbertzek? Familia oneko Adrian Singleton dut orai buruan, bertze soldadu gazte hori eta bertze hanbat harlako.

–Aski da, Basil. Ongi ez dakizkizun gauzes ari zare mintzatzen –erran zue Dorianek–. Badakit nola hitz iten duen Ingalaterrako jendeak. Herrialde hontan jendeak bi aurpegi dauzki. Ni bejalako pertsones txutxu-mutxuka hitz iten dute, eta gero, iork begiratzen ez diotenean[139], anises gauza latzagoak iten tuzte.

–Dorian, hori ez da kontua. Badakit Ingalaterra oro har gaiztoa dela, baña horixe da zuk zure lagunendako eragin ona izatea nik nahi izateko arrazioa. Zuk, aldis, ontasunean eta zintzotasunean zindaukien fedea[140] galdu duzu. Gazte urrikigarri hoiek plazeraren egiasko eromenas bete tuzu.

Dorianek irribarre egin zue.

–Nola in zakezu[141] irribarre? Zure izena garbia izatea bertzerik ez dut nahi. Eragin zoragarria duzu zuk. Izan dadiela onerako. Naure buruari galditen diot orañik izautzen ote zaituten. Baña ezin dut galde hori errespondatu. Hortarako zure arima ikusi beharko nuke.

–Ene arima ikusi! –oihu egin zue Dorian Grayk. Besaulkitik jauzi batean xaiki ze, beldurrak zurbildurik.

–Bai –errespondatu zio Hallwardek. Tristura handia ikusten ze harren agotsean–. Zure arima ikusi. Baña Jangoikoak bertze iork ezin du hori in.

Mindurasko barrea[142] atra ze gizonik gazteenaren ezpainetatik.

–Zaurorrek ikusiko duzu, bada, gau hontan berean! –erran zue ozenkiro, mahai gañeko lanpara bat hartu artean–. Zatoz; zaurorren lana da. Zergatik ezinko duzu, bada, hura ikusi? Gero nahi duzuna erran ahal izain diozu munduari hartas, harla nahi izanes geros. Iork ez dizu siñestatuko. Eta siñestatzen badizute, maiteagoko izain naute. Zatoz, erraten dizut. Aski hitz in duzu usteltzeas. Orai zaure aitzinean ikusiko duzu.

Eromena zego erraten zuen hitz bakoitzean. Atsegin handia ematen zio bere sekretua partekatuko zuela pensatzeak. Erretratua margotu zuen gizonak harren ahalkea partekatuko zue. Handik aitzina, margolariak betiko eramanen zue bere artelanaren oroitze izugarria.

–Bai –segitu zue, harrengana hurbildu artean–. Naure arima erakutsiko dizut. Zaurorrek ikusiko duzu zaure ustes Jangoikoak bakarrik ikus zakena.

Hallwardek atzera egin zue.

–Ezin duzu horlakorik erran, Dorian! –erran zue bizikiro–. Hitz hoiek ikaragarriak dire eta ez dute deus erran nahi.

–Ezetz uste duzu? –eta barre egin zue berris.

–Badakit ezetz. Dorian, erran behar dirazu... –margolariak beso batetik heldu zio lagunari, eztikiro.

–Ez ni ukitu gero! Buka zazu erran nahi dirazuna.

Artista ezin gehiagotan goibeldu ze. Tximinia aldera ibilli, eta pensatzen gailtu ze, sutan zegon egurrari begira.

–Etxedeten nago, Basil –erran zue gizon gazteak, agotsa argi eta lehor.

Hallward harrengana itzuli ze.

–Hauxe da erran behar dizutena –ozenki hitz egin zio–. Zutas erraten tuzten gauza ikaragarri hoiei guziei errespondatu behar diozute[143]. Erran zadazu gezurra direla, Dorian! Ez duzu ikusten, nola sufriarazten nauten? Ene Jangoikoa! Ez eni erran, gero, gaiztoa eta ustela zarenik, ahalkeizunes betea.

Dorian Grayk irribarre egin zue.

–Zatoz eneki gora, Basil –erran zue poliki–. Egunoros idazten duten egunorokoa doket hor goiti, eta ioiz ez dut atratzen hura idazteko doketen kanbratik. Erakutsiko dizut, eneki gora etortzen barinbazare.

–Zureki juain naiz, Dorian, harla nahi baduzu. Trena galdu dutela ikusten dut. Ez zaida axola. Bihar ere juan naike. Baña ez zadazu eskatu gaur deus irakurtzeko. Nahi duten guzia nere galdearendako errespondatzea da, bertzerik ez.

–Goian emain dizut. Hemen ezin dut erran. Ez duzu anis irakurri beharrik izain.

# HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

Kanbratik atra eta eskallera goiti abiatu ze. Basil Hallward harren gibeletik zihoaie. Poliki eta ixilik ibilli zire, jendeak gaues egiten duen gisan. Lanparak itzal bitxiak sortzen zitue paretan eta eskalleretan.

Goiti heldu zirelarik, Dorianek lanpara lurrean utzi zue. Giltza poltsikotik atra eta sarrallan jirarazi zue.

–Egias xakin nahi duzu, Basil? –galdegin zue agopean.

–Bai, bada.

–Anis ongi –errespondatu zio, irribarres. Segituan gehitu zue–: Nitas guzia xakiteko eskubidea duen munduko gizon bakarra zare. Zuk uste baño eragin handiagokoa izan duzu ene bizitzean.

Lanpara berris hartu eta atea iriki zue. Barrura sartu ze. Haize pixka bat sortu ze bien artean eta sugarrak dar-dar egin zue.

–Ertxi zazu atea –xuxurlatu zue, lanpara mahai gañean xarri artean.

Hallwardek harriduras begiratu zue ingurura. Garbi zego kanbra hura ez zela aspaldi erabiltzen. Guzia arrautses beterik zego, eta alfonbra zulaturik. Sagu bat lurrean lasterka joan ze igasi.

–Hortas, arima Jangoikoak bakarrik ikus zakela uste duzu, Basil. Ken zazu koadroaren gañeko oihala eta enea ikusiko duzu.

Dorianen agotsa hotza eta zorrotza ze.

–Eroturik zaude, Dorian –erran zue Hallwardek, bekoskia zimurturik.

–Ez duzu kendu nahi? Orduan, nauronek inen dut –erran zue gizon gazteak, oihal purpura zaharra hartu eta lurrera egoztearekі batio.

Margolariaren agotik izuikara oihua atra ze, erretratuan aurpegi hura ikusi zuenean. Dorian Grayren aurpegia ze begiratzen ziona, eta orañik bazeukie harren edertasun zoragarriaren apur bat. Baña orai zahardade eta usteltze arrasto ikaragarriak zeude hartan. Nok[144] margotu ote zue, ordea? Bere lana ezautzea iduritu zekio, eta markoa berak diseñaturikakoa ze. Ideia zentzugabea ze hura eta beldur izan zue. Lanpara goititu eta koadrora hurbildu zue. Ezkerreko behe aldean bere sinadura zego, gorris margoturik.

Zer agitu ote ze? Berak ez zue hura egin. Halarik ere, bere margolana ze. Ezautzen zue eta odola zainetan izoztu zekio. Bere margolana! Zer erran nahi zue harrek? Zergatik aldatu ze? Dorian Grayri begiratzeko jiratu ze, laguntza eskatzeko moduan. Mintzamena galdu zuela iduri zue. Eskua bekoskitik pasatu zue; izerdi hotzak bustirik zeukie.

Dorian horma ondoan txutirik zego, bere lagunari begira. Eskuan bere jakako lorea zeukie, eta harren urrina hartzen ari ze.

–Zer erran nahi du honek? –galdegin zio Hallwardek oihus, sarkorra eta bitxia iduritzen zekion agotsareki.

–Duela urte anis, nerabea nizanean –hasi ze Dorian, lorea eskuan puskatu ondorean–, izautu ninduzu eta ene nahi guziak ase zinditue. Ene edertasuna maitatzen erakutsi zindira. Egun batean zure lagun bat aurkeztu zindira. Harrek adierazi zira zein zoragarria den gaztea izatea. Ene erretratua bukatu zindue, eta horrek gaztea izatea zein ederra den erakutsi zira. Eroaldi batean txirrinta bat adierazi nue...

–Oroitzen naiz! Oi ene, ongi oroitzen naiz! Ez, ezineskoa da! Kanbra hau laizki hezea da eta oihala hondaturik dago! Zerbait agituko zekio! Berris diot hau ezineskoa dela!

–Zer da ezineskoa? –galdegin zue Dorianek, leihora hurbiltzeareki batio.

–Suntsitu zinduela erran zindira.

–Makur nengo. Berak suntsitu nau ni.

–Ezin dut siñestatu nik inikako koadroa denik. Deus txarrik ez zego hartan, deus ahalkegarririk ez. Zu enetako ideala zinda, bizitzean ioiz berris kausituko ez duten bejalakoa. Baña hau diabruume baten aurpegia da.

–Ene arimaren aurpegia da. Guziok dozkegu gaure baitan zerua eta infernua, Basil –erran zue Dorianek bizikiro, etsipenes.

Hallward berris jiratu ze erretratua zegon aldera eta oso erne aztertu zue.

–Ene Jangoikoa! Egia ote da hau? –galdegin zue ozenkiro–. Hau ote da zure bizias in duzuna? Jendeak diona baño makurragoa izan behar duzu!

Hallwarden eskuak hain bortitz egiten zue dar-dar, lanpara lurrera erori zekio eta hantxe itzali ze. Ondoan, margolaria mahai ondoko aulkian xarri ze astunki, eta eskueki aurpegia estali zue.

–Ene Jangoikoa, Dorian, hau lezioa! Hau lezio ikaragarria!

Ez zue errespuestarik izan, baña gaztea leiho ondoan negarres ari zela entzun ahal izan zue.

–Jangoikoari barkatzeko eskatu behar diogu. Sutsuegi gurtu zintura, eta orai zigorra ematen ari zaida. Zuk ere zaure burua biziegi gurtu zindue. Biok gaude zigorturik.

Dorian Gray poliki jiratu ze eta bere aixkideari begiratu zio. Glarimak zeude harren begietan.

–Beranduegi da, Basil –erran zue.

–Ioiz ez da beranduegi, Dorian. Belaurika gaitzen otoitz iteko. Ez dago nonbait berseten bat diona: «Nahiz zure bekatuak odola bejain gorriak izan, Nauronek elurra bejain zuri eginen tut»?

–Horlako hitzek enetako erranahirik ez dute yadanik.

–Ixo. Ez hitz in horla. Aski kalte in duzu zaure bizitzean. Ez ote duzu ikusten erretratu horrek nola begiratzen dizun zeharka?

Dorian Grayk koadroari begiratu zio. Bat-batean Basil Hallwardi gorroto handia ziola sentitu zue. Bizitzean deusi baño gorroto handiagokoa izan zio mahaian xarririk zegon gizon harri.

Begi basatieki ingurura begiratu zue. Zerbaitek dir-dir egiten zue aitzinean zeukien zuresko kutxaren gañean. Egun batzuk lehenago hantxe utzirikako ganibeta ze. Hura zegon lekura poliki ibillis, Hallwarden ondotik pasatu ze. Ganibeta eskuetan hartu, eta jiratu ze. Hallward aulkian mogitu ze, txutitzeko bejala. Dorianek harren gañera jauzi egin zue, eta ganibeta lagunaren lepoan sartu zue behin eta berris, burutik heldurik mahaiaren kontra eusten zion artean.

Ganibeta mahai gañera egotzi, eta urrats batzuk gibelera egin zitue. Deus ez ze entzuten, ez barinbaze odolak alfonbra gañera erortzean egiten zuen hotsa. Atea iriki zue eta eskalleretara atra ze. Etxea guzis ixilik zego. Ior ez zego.

Zein zalui agitu zen guzia! Modu bitxian lasai sentitzen ze, eta leiho aldera ibilli ze eta iriki zue. Haizeak lañua kendu zue eta zerua garbi ikusten ze. Behera begiratu eta polizia bat ikusi zue karrikan oñes. Etxe guzietako atariak argistatzen zitue lanpara bateki.

Leihoa ertxi ondoan, kanbra zaharrera itzuli ze. Ez zio hillikako gizonari begiratu. Kontu harren kakoa hartan ez pensatzea zela sentitzen zue. Erretratu ikaragarri hura margotu zuen laguna bere bizitzetik desagirtu ze. Pensamentu hura aski zue.

Lanpara altxatu eta ezin izan zue saihestu lagun hilla ikustea. Zein geldi zegon! Zein luzeak ziren harren esku zuriak! Kanbratik atra, eta atea giltzas ertxi zue. Eskallera beheiti zihoaienean, urrutiko min oihuak entzutea iduritu zekio. Hanbat aldis gelditu ze erne entzuteko. Ez, ordea: guzia lasai zego.

Liburutegira itzulirik, Hallwarden maleta eta berokia txoko batean ikusi zitue. Haiek nonbait ezkutatu beharra zego. Ezkutuko armairu bat iriki zue giltzas, eta harara egotzi zitue. Erraz erre ahal izanen zitue geroago. Gero ordua begiratu zue erlojuan. Ordu biak hogei guti zire.

Pensatu nahirik xarri ze. Urteoros hiltzalle anis urkatzen zute berak egin zuena baño gutiagogatik. Basil Hallward hameketan atra ze Dorianen etxetik. Iork ez zue itzultzen ikusi. Zerbitzaria lo zego... Paris! Bai; Basil Parisa joan ze gauerdiko trenean, lehendik pensaturik zeukien bejala. Hilabeteak joanen zire iork deus susmatu baño lehen. Hilabeteak! Anises lehenago desagirraraziko zue guzia.

Bat-batean ideia bat izan zue. Bere berokia eta kapela jantzi zitue eta etxeko sarrerara joan ze. Hango leihotik polizia etxe aitzinetik pasatzen ikusi zue. Hatsari eutsirik etxeden zue. Pixka bat geroago etxetik atra ze eta atea kontu handis ertxi zue. Orduan atea jo zue bereko ezkilatxoari tira eginik. Bortz bat minutu geroago zerbitzaria agirtu ze. Erdi jantzirik zego eta logale-aurpegia zeukie.

–Sentitzen dut zu xaikiarazi izana, Francis –erran zio Dorianek, etxean sartzeareki batio–. Baña giltzak atzendu zaizkida. Zer ordu da?

–Ordu biak eta hamar, jauna –errespondatu zue gizonak, erlojuari begira.

–Ordu biak eta hamar? Bai berandu! Bihar bedratzietan idatzarri behar nauzu. Zereginak dozket.

–Ongi, jauna.

–Iork deitu du arratsaldean?

–Hallward jaunak, jauna. Hementxe izan da hamekak artio, eta gero trena hartzera juan da.

–Sentitzen dut ez ikusi izana. Mezurik utzi dira?

–Ez, jauna. Paristik idatziko dizula erran du.

–Bertzerik ez, Francis. Ez atzendu bihar bedratzietan ni idatzartzea.

–Ez, jauna.

Gizona bere lokanbrara joan ze.

Dorian Grayk kapela eta berokia mahai gañean utzi zitue eta liburutegian sartu ze. Ordu laurden batean, ezpaineri hozkaka ibilli ze, pensakor. Gero apal batetik Gidaliburu Urdina hartu eta helbide bat bilatu zue. «Alan Campbell, Hertford 152 karrika, Myfair». Bai, huraxe ze behar zuen gizona.

# HAMALAUGARREN KAPITULUA

Goizeko bedratzietan zerbitzariak katillu bete txokolate zekarre lokanbran sartzean, eta gortinak zabaldu zitue. Dorian lo zego, saiheska etzanik, esku bat matel azpian xarririk.

Begiak irikitzean irribarre egin zue. Goatze barruan xarri eta txokolate beroa edaten hasi ze. Azaroko iguzkiak lokanbra argistatzen zue, eta zerua txahu[145] zego. Maiatzeko goiza iduri zue.

Muski-muski[146] aurreko gauean agitu zenas oroitu ze. Hillikako gizona orañik ere han zego, xarririk, eta orai iguzkiaren argitan. Bai izugarria zela! Gauza ikaragarri haiek ilunperako zire, ez egunerako.

Txokolatea edan ondoan, idazmahaira joan ze eta bi gutun idatzi zitue. Bat poltsikoan sartu zue, eta bertzea zerbitzariari eman zio.

–Ereman[147] zazu hau Hertford karrikara, 152 zenbakira, Francis. Campbell jauna Londresen ez balego, xakin zazu harren helbidea.

Bakarrik gailtu zenean, zigarro bat itxigi, eta paper batean marrazten hasi ze. Lehendabisko loreak marraztu zitue, gero etxeak eta gero giza aurpegiak. Bat-batean goartu ze ma-

rraztu zituen aurpegi guziek Basil Hallwardena iduri zutela. Bekoskia zimurtu zue, eta liburutegiko liburu baten hartzeko xaiki ze. Gero besaulkian etzan ze.

Egias poliki, ordubete joan ze. Momentuoros erlojuari begiratzen zio. Minutuak pasatzen ziren naurrian, egonezina handiagoa ze. Xaiki eta kanbran harara eta honara ibilli ze. Eskuak oso hotz zeuzkie.

Azkenean atea iriki ze eta zerbitzaria sartu ze.

–Campbell jauna, jauna –erran zue gizonak.

Kolorea mateletara itzuli zekio.

–Sar dadiela berla, Francis.

Berris ere ongi sentitu ze. Beldurra joan zekio.

Pixka bat geroago Alan Campbell kanbran sartu ze, aurpegia serio eta aski arranguraturik.

–Alan! Oso atsegina zare. Esker mille etortzeargatik[148].

–Zure itxean berris ez sartzea erabaki nue, Gray. Baña hil edo biziko kontua dela erran duzu –harren agotsa lehorra ze eta hotza, eta eskuak berokiko poltsikoetan gorde zitue.

–Bai, hil edo biziko kontua da, Alan, ez enetako soilik. Xar zeit.

Campbell mahai ondoan xarri ze, eta Dorian harren aurrean. Bien begiradak gurutzatu zire. Dorianenean tristura handia zego. Baziakie eginen zuena ikaragarria zela.

Momentu bates ixilik egon ondorean, Dorianek poliki erran zue:

–Alan, itxearen goialdean giltzas ertxirikako kanbra batean, ni bertze ior sartzen ez den hartan, hillikako gizon

bat dago mahai batean xarririk. Badu hamar bat ordu hil dela. Ez zeit aztoratu, eta ez eni horla begiratu. Ez zaizu axola gizon hori nor den, ezta nola edo zengatik hil den ere. In behar duzuna da...

–Aski da, Gray. Ez dut yago xakin nahi. Ez dut xakin nahi diozuna egia den ala ez. Ez dut zure bizitzean egon nahi. Gorde zure sekretu ikaragarriak zauretako bakarrik. Eni ez zaizkida batere axola.

–Axola beharko zaizkizu, bada. Damu dut zuregatik, Alan, baña ez dut bertze erremediorik. Zu zare salba nazaken gizon bakarra. Zientzialaria zare. Badakizu kimikas, esperimentu anis in duzu. Goiko kanbran dagon hori desagirrarazi behar duzu.

–Eroturik zaude, Dorian.

–A, esker mille Dorian deitzeargatik!

–Eroturik zaudela erraten dizut, nik hontan lagunduko dizutela uste baduzu; eroturik, eni aitorpen hori egitean. Ez dut kontu hontas deus xakin nahi.

–Suizidioa izan da, Alan.

–Pozten naiz. Baña nok ereman du suizidatzera? Zuk, hori seguru.

–Ez duzu egin nahi nik eskatzen dizutena?

–Xakina, bada, ezetz. Makurreko gizonarengana jo duzu. Deitu zure lagunegi, enegana etorri bage.

–Alan, hilketa izan da. Nauronek hil dut. Ez dakizu nola sufriarazi diran.

–Hilketa! Ene Jangoikoa, Dorian, egias hori in duzu? Ez dut hontan nahasi nahi.

–Nahasi beharko duzu, bada. Ez yago galdin. Dagoneko gehiegi erran dizut. Baña eskaturikakoa in beharko duzu. Aldi bates lagunak izan ginda, Alan.

–Ez aipatu egun haiek, Dorian; hillik daude.

–Laguntzen ez barinbadirazu, galdua naiz. Urkatuko naute, Alan. Ez duzu entendatzen? Hilen naute, in dutenagatik.

Campbell joateko asmos txutitu ze.

–Ez dut hemen deus in nahi. Erokeria da eni horlakorik eskatzea.

–Ez duzu nahi?

–Ez.

Berris ere tristura itzuli ze Dorianen begietara. Orduan paper bat hartu eta zerbait idatzi zue hartan. Bi aldis irakurri ondoan, mahai gañean bulkatu zue Alanen aldera. Gero txutitu eta leihora joan ze.

Campbellek harriturik begiratu zio eta papera hartu zue. Irakurtzen zuen naurrian zurbildus joan ze, eta berris xarri ze bere aulkian.

Bizpahiru minutuan hitz egin gabe egon ondorean, Dorian lagun ohiari hurbildu zekio eta harren ondoan txutirik gailtu ze.

–Egias sentitzen dut zuregatik, Alan –erran zue, esku bat harren soñegian xartzeareki batio–. Baña ez dago bertze erremediorik. Gutun bat doket, idatzirik. Hona hemen.

Begira zaiozu helbideari. Ez badirazu laguntzen, berla bialduko dut. Badakizu zer agituko den orduan. Baña uste dut lagunduko dirazula; orai ezin diozu uko in.

Campbellek bi eskueki estali zue aurpegia. Goitik behera egin zue dar-dar.

–Kontua laizki erraza da, Alan. In behar da eta kito. Eman zaiozu aurpegi eta in zazu.

Soinu ikaragarria atra ze Campbellen ezpainetatik.

–Tira, Alan, erabaki beharra dokezu. Ez denborarik galdu.

Campbellek duda izan zue momentu bates.

–Surik badago kanbran?

–Bai, gasesko berogailu bat dago.

–Itxera juan behar dut eta zera hartu... gauza batzuk.

–Ez, Alan, ez duzu itxe hontatik atra behar. Idatz zazu paper batean zer behar duzun, eta nere zerbitzariak ekarriko dizu.

Kasik ordu biak zire zerbitzaria Campbellek eskatu zituen gauza guziak egurresko kaxa handi batean harturik itzuli zenean.

–Arratsaldea eta gaua libre har zaizkezu[149], Francis.

–Esker mille, jauna.

Zerbitzaria joan zelarik, bi gizonek eskallera goiti eraman zute kaxa. Dorianek bere giltza atra eta sarrallan jirarazi zue. Orduan gelditu ze, eta Campbellek ikusi zue begiak glarimas beterik zeuzkiela.

–Ez dut uste sartu ahal izain naizenik, Alan –erran zue.

–Ez zaitut behar –errespondatu zio Campbellek, hozkiro.

Dorianek erdizka iriki zue atea. Hura egitean, bere erretratuaren aurpegia iguzkiak argistaturik ikusi zue. Orduan aurreko gauas oroitu ze, izan ere, bizitzean lehendabisko aldis, margolana estalirik uztea atzendu zekio. Eta hura lasterka estali behar zuenean, zerbaitek gibelera eragin zio beldurraren beldurres.

Erretratuko iduriaren eskuetariko batean odola zego. Hura gauza ikaragarria!

Atea pixka bat iriki zue kanbran fite sartzeko, hillari begiratu gabe, beti ere. Zorutik oihala altxatu eta erretratuaren gañean paratu zue. Campbell kaxareki sartzen ari zela entzun zue.

–Utz nazazu bakarrik orai –erran zue agots zorrotzak, gizon gaztearen gibelean.

Dorian lasterka atra ze, baña lagun hilla aulkian atzera xarririk zegola ikusi zue, eta Campbellek harren aurpegi horixka eta distiratsua aztertzen zuela.

Arratsaldeko zazpiak ongi jorik zeude Campbell liburutegira itzuli zenean. Zurbil zego, baña itxuras lasai.

–Eskatu dirazuna in dut –erran zue lehorki–. Eta orai agur. Ez zaitut ioiz berris ikusi nahi.

–Salbatu nauzu, Alan. Ez dut atzenduko –erran zio Dorianek, bertzerik gabe.

Campbell etxetik atra zelarik, Dorian gora joan ze.

Ikaskanbra zaharrean urrin ikaragarria zego. Baña mahaian xarririk egonikako mamua desagirtu ze.

# HAMABORZGARREN KAPITULUA

Gau hartan berean, dotore jantzirik, Dorian Gray Lady Narboroughen egonkanbra handian sartu ze, zerbitzari ilada baten ondotik. Korputz guzia dardaraka zeukie urduri, baña andre etxexabearen eskua apatzeko makurtzean, harren portaera beti bejain naturala izan ze. Gau hartan Dorian Gray ikusiko zuen iork ezin izanen zue imajinatu tragedia lazgarria bizi berria zenik. Eri[150] haiek ezin zute ganibetarik hartu ior hiltzeko, ezta ezpain irribarretsu haiek Jangoikoaren aurka birao egin ere. Bera ere harriturik zego bere portaera lasaias, eta mines sentitu zue bizimodu bikoitzaren atsegin beldurgarria.

Lagun arteko batzarrea ze Lady Narboroughen hura. Lord Henryren arabera, ladya emazte aski itxusia ze, senarra yadanik berak diseñaturikako marmolesko mausoleoan hilobiraturik zeukiena. Batzarrea, ordea, aspergarria ze, konbitatu ezezaun eta interesik gabekoeki.

Dorian damutzen hasirik zego etorri izanas, Lady Narboroughek bizitasun handis erran zuenean:

–Bai adeigabea Henry Wotton, honen berandu etortzean! Goizean konbitatu dut eta huts in bage etorriko zela erran dira.

Kontsolagarria ze Harry etorriko zela xakitea; eta, hura sar zedien, atea iriki eta harren agots musikala jendea gezurres laudatzen entzun zelarik, Dorian Grayk asperturik egoteari utzi zio. Baña, mahaian xartzean, ezin izan zue otamenik[151] jan. Jakiak bata bertzearen ondorean utzi zitue ukitu ere egin gabe. Lord Henryk anis aldis begiratzen zio, harren ixiltasunak harriturik. Zerbitzariek hanbat aldis bete ziote xanpain kopa, eta harrek tirrias[152] edan zue; halarik ere, egarri aseezina zeukiela iduri zue.

–Dorian –erran zue Lord Henryk azkenean, postrea jan artean–, zer duzu gau hontan? Aldaturik zaude.

–Ene ustes maitemindurik dago –erran zue Lady Narboroughek–, eta aitortzeko beldurres dago, ni jeloskor xarriko ote naizen.

–Ene Lady Narborough maitea –erran zio Dorianek, irribarretsu–; gutienes astebete damat maitemindu bage. Egia errateko, ez naiz maitemindu Ferrol andrea Londrestik juan zenes gerostik.

–Bertzerik bage, zu nesakoa zindan garaia oroitarazten baitio, Lady Narborough maitea –artekatu zue Lord Henryk.

Lady Narboroughek bere abanikoareki ukitu zue.

–Lord Henry –erran zio–, ez da gero harritzekoa, jendeak gaiztoa zarela erratea.

–Guzis kriminala da –erran zue gizonak– jendearen egungo portaera, gauren bizkarrean erraten baituzte gutas guzis egia diren gauza iraingarriak.

–Ongi –emazteak berris hitz egin zue, Doriani begira–; emazte konbenigarria arkitu beharko diogu. Gazte hautagai guzien zerrenda prestatuko dut.

–Haien adina xarririk, Lady Narborough? –galdegin zio Dorian Grayk.

–Erran beharrik ez dago adina pixka bat txujenduko diotegula[153]. Ezkontzea konbenigarria izatea nahi dut, eta biak zoriontsuak izatea.

–Zentzugabekeria da ezkontide zoriontsues hitz itea! –egotzi zue Lord Henryk–. Gizona edozein emaztereki izan daike zoriontsu, ez barinbadago harreki maitemindurik.

–Baña zein zinikoa den gure Lord Henry! –kexatu ze andrea, aulkia gibelera bulkatzeareki batio–. Zatoz laster eneki afaltzera, baña erran zadazu zein pertsona ikusi nahi zindituzken hantxe. Batze atsegina izatea nahi nuke.

–Eni etorkizuna duten gizonak agratzen zaizkida, eta iragana duten emazteak –errespondatu zue gizonak.

Bertze gizonek barre egin zute. Dorian Gray lekus aldatu ze, Lord Henryren ondoan xartzeko. Irribarre dantzari bat zebille Lord Henryren ezpainetan, eta, hura ezkutatu nahirik, Doriani mintzatu zekio:

–Hobeki zaude, ene lagun maitea? –galdegin zio–. Afarian gaizki egon zarela iduritu zaida.

–Ongi nago, Harry. Nekaturik baño ez nago. Hori baño ez.

–Bart laizki goiz juan zinda, hamekak baño lehen. Zer in zindue gero? Itxera juan zinda txujenean?

Dorianek xakin-mines begiratu zio.

–Ez, Harry –erran zue azkenean–, hirurak artio ez niza itxera itzuli.

–Klubera juan zinda?

–Bai –errespondatu zue, eta berla hozka egin zio ezpainari–. Ez, ordea, ez niza klubera juan. Hor nonbait ibilli niza. Ez naiz oroitzen non. Zu bai galdinzale gaur, Harry! Beti zabiltza bertzeok iten duguna xakin nahian. Nik, ordea, beti deseatzen dut nauronek in dutena atzentzea. Itxera ellegatzean, giltza barruan atzendu zekidala ikusi nue, eta zerbitzariak iriki behar izan zira atea. Egia den xakin nahi barinbaduzu, galdin zaiozu harri.

Lord Henryk soñegiak goititu zitue.

–Ene lagun maitea, eni bortz axola zaida hori! Goazen gora, egonkanbrara... Zerbait agitu zaizu, Dorian. Konta zadazu. Zu ez zare gau hontan betikoa.

–Ez niri kasurik in, Harry. Urduri samar nago. Bihar edo etzi juain naiz zure ikustera. Desenkusa nazazu Lady Narborougheki, mertxedes. Itxera noaia. Gabon.

Etxera bidean, ustes menperaturik zeukien beldurra harren izate osoas xabetu ze berris. Lord Henryren galde haiek urduri xarri zute pixka batean. Behar-beharreskoa ze gauza periltsuak desagirraraztea. Haiek uki zakizkela[154] pensatze hutsak eri xartzen zue.

Saihestezina ze, ordea. Horla, bada, liburutegiko atea giltzareki ertxi ondorean, Basil Hallwarden berokia eta maleta gorderik zeuzkien armairua iriki zue. Tximinian su bizia zego. Errerikako arroparen eta larruaren urrina higuingarria ze. Hirur ordu laurden behar izan zitue haiek guzis erretzeko.

Bukatzean flako eta eri[155] sentitu ze. Su-untzi txipi batean pastilla urrintsu batzuk xarri, eta aurpegi-eskuak ozpin lurrinestatus txahutu zitue.

Bat-batean hotzikara handia sentitu zue. Begiek dir-dir egin ziote eta ezpaineri hozka egin ziote. Bi leihoen artean zuresko idazmahai bat zego. Erne begiratu zio. Harren hats hartzea hats-ertzi[156] bihurtu ze. Desira menperaezina nausitu zekio. Azkenean mahaira joan ze eta malguki ezkutu bat ukitu zue. Hiruki formako erretilu bat agirtu ze, eta hartan kaxa txinatar txipi bat zego. Iriki zue; harren barruan gai berde bat zego, argizaia bejain distiratsua eta kolore exotikokoa.

Pixka batean dudan izan ze, irribarre hotza ezpainetan. Gero erlojuari begiratu zio. Hamabiak laurden guti zire. Kaxa berris bere lekuan utzi eta idazmahaia ertxi zue.

Erlojuak ilunpeko bere hamabi ezkila-danbadeki gauerdia iragarri zuelarik, Dorian Gray landerkiro jantzi ze, bufanda bat xarri eta karrikara atra ze anis lasai. Bond Streeten zaldi ederdun zalgurdia kausitu zue. Gidariari deitu eta helbide bat erran zio agopean.

–Hori laizki urruti dago –erran zue gizonak.

–Tori libera esterlina bat –Dorianek orduan–. Bertze bat emain dizut, fite juaten bazare.

–Ongi, jauna –errespondatu zio gidariak–; ordubete barru hantxe izain zare.

Eta, dirua poltsikoan gorderik, zaldia trostan xarri zue ugalderako norabidean.

# HAMASEIGARREN KAPITULUA

Auri[157] hotza hasi zue, eta farolen argia indargabe eta lauso ikusten ze lañu heze artean. Jatetxeak eta kafetegiak erxten zituzten ordua ze. Taberna batzuetan orañik barreak entzuten zire eta mozkorren oihuak.

Dorian Grayren zalgurdia ekialdera zihoaie, Londresen kanpoaldean. Han baziakie non kausi zukea[158] opioa; laizki ongi ezautzen zitue jendeak opioaren amets beldurgarriak saltzeko eta erosteko erabiltzen zituen leku ilunak. Lehenago ere anis aldis egon ze han.

Zalgurdia karrika ilun bateko sarlekuan gelditu eta Dorian bakarrik gailtu zenean, ezautzen zuen etxe batera abiatu ze. Hartan sartu ze eta areto antzeko kanbra luze eta baxu batean agirtu ze; garai batean hirugarren mailako dantza-aretoa izan zela iduri zue. Gizon batzuk zoru zikiñaren gañean etzanik zeude, itxasgizon bat bere mahaian lo, eta bi emazte tabernan, zerbait edaten.

Dorian fite igan ze hango eskallera meharretik, eta orduan irribarre egin zue opio urrin atsegina hartu baizue. Solairu hartako kanbretariko batean sartu ze, baña aspaldi bere laguna izanikako gazte bat ikusi zue hartan. Atzera egines, tabernara jautxi ze zerbait edan nahian.

Bi emaztetariko batek hitz egin zio.

–Ez eni hitz in gero, Jangoikoargatik! –oihu egin zio Dorianek, hasarre bizian–. Dirua nahi duzu? Hemen duzu, tori. Baña ez zadazu berris hitz in.

–Izautzen zaitut! Printze Xarmagarria zare, ezta? –erran zio emazteak bizkar aldean, ozenkiro.

Hitz haiek entzutean, mahaian lo zegon itxasgizona idatzarri ze eta, Dorian etxetik atratzen ari zela ikusirik, harren atzetik abiatu ze txistu bizian.

Dorian ere zalui zihoaie karrika ilunean barrena, baña eskiña batera ellegatu zenean, norbaitek lepotik heldu zio. Gizon batek bulka egin zio eta paretaren kontra xarri zue. Dorian bulartsu borrokatu ze eta ezezaunaren eskuetatik libratzea erdetsi zue firris-farras. Baña orduan eskuan pistola bat zeukiela ikusi zue.

–Zer nahi duzu? –galdegin zue berla.

–Egon zeit geldi –manatu zio gizonak–. Mogitzen barinbazare, tiro inen dizut.

–Eroturik zaude. Zer in dizut, bada, nik?

–Zuk ereman zindue Sibyl Vane heriotzera –gizonaren errespondatzea–, eta Sibyl Vane ene arreba ze. Bere burua hil zue, badakit, baña zuk eragin zindue harren heriotzea. Zin in nue, zu nonahi ikustean, han berean hilen zinturala. Urte habetan guzietan zure bila ibilli naiz. Zure arrastorik ez neukie, ordea. Izautu zinduzten bi pertsona bakarrak hillik daude. Arrebak xarri zizun izena bertzerik ez niakie zutas. Gaur kasualidades entzun dut. Egin zazkizu Jangoikoarekikoak, hemen berean hilen baizaitut.

Dorian Gray izuturik zego.

–Nik ez nue zure arreba izautu –erran zue, dardaraka–. Ioiz ez dut harren izena entzun. Makur zaude.

–Hobe duzu zure bekatua aitortzea, ni James Vane naizen bejain seguru hilen baizare.

Momentu bates ixiltasuna ikaragarria izan ze. Dorianek ez ziakie zer erran edo zer egin.

–Belauriko! –manatu zue gizonak–. Minutu bat daukazu prestatzeko, bertzerik ez. Gaur berean Indiarako itxasuntzia hartu behar dut, baña lehendabisko ene mendekua beteko dut.

Dorianek besoak txintxilik utzi zitue, indarrik gabe. Izuak paralizaturik, errespondatu ere ezin zue egin. Orduan esperantza eroa sentitu zue.

–Etxeden! –eskatu zue oihuka–. Zenbat denbora da zure arreba hil zela? Erran zadazu fite!

–Hemezortzi urte –errespondatu zio James Vanek–. Zengatik galdin duzu hori?

–Hemezortzi urte! –Dorian Grayk barre egin zue, garaipen pixka bat agotsean–. Hurbil gaitzen lehenbisko karrikaargira, eta begira zadazu aurpegira.

Nahiz haizeak argia dardarazi, itxasgizonak Dorian Grayren aurpegia aztertu ahal izan zue. Ez zue iduri hogei urte baño gehiago zeukienik; hori pixka bat gehiago ze, harren arrebak hiltzean zeukiena baño. Garbi zego gizon hura ezin zela izan harren bizitzea hondatu zuena.

Vanek bere biktima askatu eta gibelera egin zue.

–Ene Jangoikoa! –xuxurlatu zue–. Kasik hil zaitutela pensatzea ere!

Dorianek lasaiago hatsartu zue.

–Hobe zinduke zure itxera juan eta arma hori gordeko bazindu, zoritxarrik ez zagun izan –erran zio Dorianek, jiratu eta poliki joateareki batio.

James Vane karrikaren erdian gailtu ze, ikaraturik. Goitik behera dardaraka ari ze. Handik denbora gutira esku batek besoa ukitzen ziola goartu ze. Izuturik itzuli ze. Tabernan edaten zeuden emaztetariko bat ze.

–Zergatik ez duzu hil? –galdegin zio emazteak–. Lerdo hori! Hil behar zindue. Diru anis doke eta gaitza bera baño makurragokoa da.

–Ez da ni bila nabillena –errespondatu zue gizonak–, eta niri bortz horren dirua edo bertze edonorena. Nik nahi dutena gizon baten bizia da. Eta bila nabillenak berrogei bat urte izain tu; hori, aldis, oso gaztea da, kasik nerabea.

Emazteak mindurasko barre algara egin zue.

–Kasik nerabea! Bada, xakin zazu duela hemezortzi urte inguru orai naizena bihurtu ninduela berak.

–Gezurretan ari zare! –James Vanek, oihuka.

–Jangoikoaren aitzinean zin dagit egia erraten dizutela. Baña ez ni salatu gero –erregutu zue emazteak. Beldur handia diot. Eman niri txanpon batzuk goatze baten alokatzeko.

Vane emazteaganik joan ze madarikazioka, karrika eskiñara lasterka joanes, baña Dorian Gray desagirturik zego. Atzera begiratzean, emaztea ere joanik zegola ikusi zue.

# HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

Astebete geroago Dorian Gray bere landetxean zego, Monmoutheko dukesa ederrareki, Lord Henryreki eta konbitaturikako bertze lagun batzueki hitz egiten. Lady Monmouth, bera baño anises zaharragokoa zen bere senarrareki zegona, oso emazte umoretsua ze, eta Dorian Gray anis agratzen zekiola iduri zue. Arratsaldean, tea hartzeko orduan, bizikiro ari zire kontu kontari.

–Nola deitu beharko gindizuke zuri, Harry?

–Bere izena Paradoxa Printzea da –erran zue Dorianek.

–Ez dut horlakorik entzun nahi –Lord Henryk barres, besaulki batean xarri artean–. Gaitzizenak gaitzerako dire beti. Ez dago haietatik libratzerik. Uko iten diot tituluari.

–Maiestateek ez dute abdikatu behar –erran ziote biei dukesa ederrak.

–Orduan, ene tronua defenda zadan nahi duzu?

–Bai horixe.

–Nik egiak goizean goizik erraten tut.

–Nik, berris, nahiago tut egungo akatsak –errespondatu zue emazteak.

–Desarmatu nauzu, Gladys –erran zue bizitasunes, harren asmoa ikusirik.

Emazteak, Dorian Gray berari begira zegolarik, burua idarrosi zue eta kexatu ze.

–Fedea dut arrazan.

–Indartsuenen biziraupena idurikatzen du –erran zue Lord Henryk.

–Garapen bidean dago, egiaski.

–Nahiago dut gainbehera.

–Zer diozu arteas?

–Eritasuna da.

–Eta maitasunas?

–Lilurakeria da.

–Eta erlijioas?

–Fedea ordezkatzen duena da.

–Eszeptiko hutsa zare.

–Iola ez! Eszeptizismoa siñestatze baten hastea da.

–Eta zer zare orduen?

–Nok bere burua definitzea mugatzea da.

–Idazu[159] hari gidari baten punta.

–Haria hautsi daike. Labirintoan galduko zindake.

–Nahasten nauzu. Hitz in zagun bertze gauza bates.

–Gure anfitriona gai xarmagarria da. Duela urte anis Printze Xarmagarri izena xarri ziote.

–A!, ez zadazu hori gogorarazi –eskatu zue Dorian Grayk, eta gero emazteari mintzatu zekio–: Utz zadazu zuretako lore batzuk ekartzera, mertxedes –txutitu eta musika-aretoa zegon aldetik joan ze.

–Ene maitea, zu Dorian Grayreki maitemindurik ez egotea espero dut –erran zio Lord Henryk dukesari–. Ibil zeit kontu handis. Interesgarriegia da. Gañera, lehiakide bat dokezu.

–Nor da?

–Nor? Lady Narborough –izena xuxurlatu zue, barres–. Laizki maite du Dorian.

–Izutzen nauzu. Antzinate zaletasuna galgarria zaigu andre erromantikooi.

–Erromantikoak! Metodo zientifiko guziak erabiltzen tuzue eta!

–Gizonek hezi gaituzte.

–Baña ez zaituzte[160] esplikatu.

–Deskribatu gu sexu gisa –erronka egin zio.

–Esfinge... sekretu bageak.

Dukesak irribarretsu begiratu zio.

–Dorian berandutzen ari da! –erran zue emazteak–. Goazen laguntzera. Orañik ez diot erran zein koloretakoa den ene soñekoa.

–A!, zure soñekoa harren loreen arabera hautatu behar duzu, Gladys.

Hitz haiek erran eta berla, aretoaren bertze aldetik oihu indargabe bat entzun ze eta, segituan, lurrera erortzen zen

korputz baten zaragata. Guziak asaldatu zire. Dukesa beldurrak jorik gailtu ze. Lord Henryk, izuak begiak handiturik, palmondoen hosto artetik aitzina egin zue, eta Dorian Gray lurrean agospes etzanik arkitu zue, konorterik gabe.

Berla eraman zute aretora, eta dibanetako batean eratzan zute. Minutu batzuk geroago bere onera itzuli ze eta nahasirik begiratu zue ingurura.

–Zer agitu da? –galdegin zue–. A, oroitzen naiz. Seguru ote nago hemen, Harry?

Eta dardaraka hasi ze.

–Dorian maitea –errespondatu zio Lord Henryk–, zorabialdi bat baizik ez da izan. Neke handiak eragina, seguruenik. Hobe izain da zu afaltzera ez jauxtea.

–Ez; jautxi nahi dut –erran zue, ahalegin handis txutitu bitartean–. Nahiago dut zeki afaldu. Ez dut bakarrik gailtu behar.

Bere kanbrara joan eta jantzi ze.

Poz behartua erakutsi zue mahaian. Noizean behin, hotzikara handiak idarrosten zue; izan ere, aldian-aldian burura etortzen zekio musika-aretoko leihoan, erretratu zuri batean bejala, James Vaneren aurpegia, berari begira-begira zegola.

# HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

Biharamunean ez ze etxetik atra, eta kasik egun osoa bere kanbran eman zue, heriotzeari zion beldurrak jorik, baña, hala ere, biziarekiko axolagabekerias. Segitua, zelatatua eta inguratua sentitzeak ikaras betetzen zue. Begiak erxten zituelarik berris ikusten zue itxasgizonaren aurpegia, lañuak lausoturikako kristaletatik erne begira, eta beldurra berris xabetzen ze harren bihotzas.

Nolako bizimodua izanen zue, barin eta, gau eta egun, bere krimenaren itzalek txoko ixilen batetik begiratuko ote zuten beldurres, eta xairen batera joatean bearrira[161] xuxurlaka hitz eginen ote zioten beldurres, eta lo zegolarik behatz ikaragarri hotzeki idatzarriko ote zuten beldurres bizi behar bazue? Hartan pensatzean, beldurres zurbildu ze, eta hotzikara batek korputz osoa idarrosi zio. Oi, zer nolako eroaldian hil zuen bere laguna! Nolako oroitze lazgarria! Buruan garbi eta txahu ikusten zue agitu zen guzia. Denboraren butzu beltzaren sakonetik, Dorianen aitzinean txut eta tente agiri ze, ikaragarri eta odoles talaturik[162], bere bekatuaren iduria. Seietan Lord Henry harren kanbran sartu zenean, negarres kausitu zue, min handi batek jorik bejala.

Hirugarren egunean, neguko goiz argi eta distiratsuan kanbratik atratzera ausartu ze. Bere laguneki elkartu ze egizara[163] joateko asmos. Dorian eta Lady Monmouth baso ertzera abiatu zire oñes; handik hurbil, gizonak hegaztieri eta arimale txipieri tiroka ari zire. Aire freskoak eta basoko soinuek eta urrinek Dorian alaitzen zute. Bat-batean, norbaitek bien ondoko zugatzetara egin zue . Goiz giro argian bi oihu entzun zire, arimale batena eta pertsona batena, biak ere mina adierazten zutenak.

Orduan egiztarien[164] alarma-oihuak entzun zire, eta laster gizon baten gorpua atra zute zugatz artetik. Izuturik, Dorian Grayk bertze alde batera begiratzen zue. Zoritxarra berareki edonora zihoaiela iduri zue.

Jendea etxera itzultzen hasi ze. Lord Henry Dorian Grayri hurbildu zekio, istripus tirokaturikako gizona hillik zegola errateko.

Dorianek burua idarrosi zue.

–Oi, Harry –erran zue poliki–. Laster gutariko norbaiti zerbait ikaragarria agituko zaiola uste dut; nauroni, menturas.

Lord Henryk barre egin ziote lagunaren hitzeri.

–Zer agi lekizuke zuri? Mundu hontan desea liteken guzia dokezu. Atzen zazu istripu hau, istripua baita eta ez hilketa –eta gero irribarretsu gehitu zue–: Baña egias interesgarria lizake norbait hil duen pertsona bateki egotea.

–Zer gauza ikaragarri erraten tuzun! –atra zekio Lady Monmouthi–. Ez duzu harla uste, Dorian? Dorian! Gaizki zaude berris? Hain zurbil zaude...

Dorian Grayk irribarre egin zue eta lasai hitz egiten saiatu ze:

–Ez da deus, baña barka nazaze; pixka batean etzatera juain naiz.

Bere lokanbran, Dorianek beldurres dardaraka segitzen zue haizeak idarrosirikako hostoaren gisan. Etxe hartan bertze gaurik ezin izanen zuela eman sentitzen zue. Heriotzea lasai zebille leku hartan egun argis. Londresera lehen baño lehen itzultzea erabaki zue, eta bere medikua ikustea. Zerbitzaria lokanbran sartu ze harren arropa biltzeko eta, bere lana egin bitarteo, egizaldian tiros hillikako gizonas zer edo zer aipatu zue.

–Itxasgizona dela diote, baña iork ez omen daki harren izena.

–Itxasgizona! –erran zue Dorianek ozenkiro.

Jauzi batean txutitu ze. Esperantza eroa agiri ze beraren aitzinean, eta indar handis heldu zio.

–Non dago gorpua? –galdegin zue–. Fite, berla ikusi nahi dut!

Ordu laurden baño lehenago trosta bizian zihoaie zaldis. Itzal beldurgarriak agirtzen zezkio bidean. Azkenean gorpua gorderik zegon etxaldera allegatu ze. Azken kortako[165] argia itxigirik zego. Gorpua han egonen ze, noski, eta ate hartara joan ze lasterka. Garbi ikusten zue bizia jokoan xarriko zion bizipena zela hura.

Ator[166] eta praka urdines jantzirikako gizon baten gorpua zaku huts molso[167] baten gañean zego, txokorik bazterrekoenean. Xatar[168] zikin batek harren aurpegia estaltzen zue. Harren ondoan, kandela zati batek sugar txipis argistatzen zue botila baten agoan xarririk.

Dorian Gray dardaraka hasi ze. Ez ze gauza xatarra bere eskus kentzeko, eta baserritarretarik batek egin zue. Hillaren aurpegia agirian gailtu zenean, ondora hurbildu ze. Poz oihu bat atra zekio. Basoan hillikako gizona James Vane ze.

Bizpahiru minutu eman zitue hilotzari begira. Gero, berris etxera bidean zaldis zihoaielarik, begiak glarimas bete zezkio. Salbu zego!

# HEMERETZIGARREN KAPITULUA

–Ez dut aditzen zergatik erraten ote duzun ezi ona izain zarela –erran zue Lord Henryk, arrosa-ures beterikako kobre gorrisko kikara batean bere eri zuriak bustitzen zituen artean–. Gizon akats bagea zare. Ez zeit aldatu, mertxedes!

Harren eri luzeek mahai gañeko lore bat ukitzen zute arreta gabe. Primadera[169] ze Londresen, eta bi lagunak Lord Henryren etxean afaltzen ari zire.

Dorian Grayk ezesko zeñua egin zue buruas.

–Ez, Harry. Bizitzean gauza ikaragarri anis in tut, eta horgatik aldatu nahi dut. Atzo hasi niza ekintza onak iten, landan; enetako osorik alokaturikako ostatu batera juan niza.

–Ene gazte maitea –erran zue Lord Henryk irribarres–. Landan edonor da ona. Han tentaziorik ez dago eta ezineskoa da deus txarrik itea. Baña erran zadazu, nola hasi zare bizimodu berri hortan?

–Herriko nesako bat ezautu nue, baserritar ederra eta bihotz onekoa. Sibyl Vaneren laizki antzekoa ze. Oroitzen zare Sibyles? Denbora juan da! Tira, nesako horrek, Hettyk, maite nindue eta atzo eneki etortzeko prestik zego, baña nik

ezetz erran nio. Uko in nio harren bizi gaztea hondatzeari, eta ezautu nuenean bejain txahu utzi nue.

Lord Henryk barre egin zue.

–Bihozgabeturik utzi zinduela erran nahi duzu? Zu izautu ondoan, nola izain da orai zoriontsua landako mutilen bateki?

–Hori ez da kontua, Harry! –erran zue Dorianek, bizikiro–. Ezin ote duzu ioiz serio hitz in? Damu naiz guzia kontatu baitizut. Hitz in zagun bertze zerbaites. Zer agitu da Londresen egunotan?

–Bada, jendeak orañik Basil gaixoas hitz iten du, nola desagirtu ote den galdines. Ez dakit zergatik ote, bertze mintzagai anis baitaude: ene emaztea gizon bateki juan da, Alan Campbellek bere burua hil du...

–Zure ustes, zer agitu zaio Basili? –galdegin zue Dorianek, kontu handis.

–Arrastorik ere ez doket –Lord Henryren erantzuna–. Polizia ingelesaren arabera, Basil Parisa juan ze azaroaren bedratzian gauerdiko trenean, baña polizia frantzesak dio ez zela Parisa ellegatu. Basilek ezkutatuik egon nahi barinbadu, hori bere kontua da. Hillik badago, nahiago dut hartas ez oroitu. Heriotzea beldurra ematen diran gauza bakarra da. Gorrotoa diot.

–Harry, ez zaizu ioiz bururatu Basil benturas eraillik egon litekela?

Lord Henryk aharrausi egin zue.

–Horixe diote egunkari batzuek –errespondatu zio lagunari–; baña nok erail nahi luke Basil gaixoa? Ez ze etsaiak idukitzeko bejain argia.

–Zer erranen zinduke, Harry, aitortuko banizu nauronek hil nuela Basil? –galdegin zue gazteak, lagunari firmokiro[170] begira.

Lord Henryk irribarre egin zue.

–Ene aixkide maitea, krimena ez duzula gogoko erranen nuke. Zuri bertze plazer batzuk agratzen zaizkizu. Eta afalondoan aipatu ezin den deus ez zinduke inen –erran eta kafe pixka bat edan zue.

Besaulkian xarririk, Lord Henryk Doriani begiratu zio, begiak erdi ertxirik.

–Hortas ari garela, Dorian, zer agitu zekio Basilek egin zizun erretratu eder harri? Urteak dire ez dutela ikusi. Ebatsi zizutela erran zindira? Bai penagarria!

–Tira, egia erran, ioiz ez nue gogoko izan –erran zue Dorianek–. Nahiago dut hortan ez pensatu.

Bi gizonak ixilik egon zire aldi bates. Gero zaharrena hobeki xarri ze besaulkian eta xakin-mines erran zue:

–Dorian, erran zadazu nola gorde tuzun orai artio zure gaztetasuna eta edertasun ikusgarri hori. Sekreturen bat izan behar duzu. Zuk baño hamar urte yago bertzerik ez dut, eta yadanik gizon zaharra iduri dut. Baña zu ez zare batere aldatu lehendabiskos ikusi zinturan egunetik. Bizitze guzis ederra izan duzu!

–Bai –errespondatu zue Dorianek poliki–, zoragarria izan da, Harry; baña orai aldatu beharra doket. Zuk ez dakizu guzia nitas.

Lagunak irribarre egin zue.

–Enetako ioiz ez zare aldatuko, Dorian. Zu eta biok beti izain gare lagunak.

–Eta, halarik ere, zu zare aspaldi liburu bateki pozoitu ninduena. Ez nizuke hori barkatu behar. Harry, hitz eman zadazu iori ez diozula liburu hori utziko. Laizki kaltegarria da.

–Baña, Dorian, dagoneko moralizatzen hasirik zaudela ikusten dut. Laster berrerosieki bat inen duzu jendea goartarazteko yadanik aspertzen zaituzten bekatues. Delikatuegia zare horlakorik eiteko. Zu eta biok garena gare eta izan behar duguna izain gare. Eta liburu horren, zuk diozun bejala, pozoitzeari dagokiones, horlakorik ez dago. Arteak ez diote[171] ekintzei eragiten. Munduak ezmoral deitzen tuen liburuak munduari berari bere ahalkeizunak erakusten dizkiotenak dire. Baña ez zagun literaturas hitz in. Zatoz bihar ene ikustera. Hameketan zaldis itzuli bat itera atrako naiz.

–Beharrezkoa da etor nadien, Harry?

–Xakina! Parkea laizki polita dago. Elkar izautu ginduen urtetik ez da horlako lore politik egon.

–Ongi, hameketan hemen izain naiz. Gabon, Harry.

Atera heltzean, momentu bates dudan gelditu ze, zerbait gehiago erran behar balu bejala. Gero hasperen egin, eta kanpora atra ze.

# HOGEIGARREN KAPITULUA

Gaua zoragarria ze eta, harlako gau giroan, berokia besoan harturik zerama. Etxera poliki zihoaielarik, etiketas jantzirikako bi gazte harren ondotik pasatu zire. Batak bertzeari agopean erraten ziona entzun zue:

–Hori Dorian Gray da.

Iork beras hitz egitea edo berari begiratzea beti zein atsegin izan zekion gogoratu zue orduan. Baña orai nekaturik zego bere izena erraten entzuteas.

Etxera allegatzean, zerbitzaria berari etxedeten kausitu zue. Goatzera bialdu zue, eta liburutegiko sofa batean etzan ze, hantxe Lord Henryk erranikako gauzes gogoeta egiteko. «Nolabait alda ote naike?», galdegin zio bere buruari. Bizitze txarra bizi izan zue, eta bertze batzuena hondatu zue. Baña hura guzia konponezina ote ze? Ez ote zego berarendako esperantzarik?

A zer nolako eroaldian erregutu zuen erretratuak har zezala bere egunen pisu astuna, berak betiko izan zezan gaztetasun amaigabearen betetasun garbia! Bere bizitzearen hondamendia hartatik zetorre. Hobe izanen zue, bizio bakoitzak zigor segurua eta berlakoa ekarri balio. Beti gazte

eta eder irautea erdetsi zue, baña larrutik ordaindu behar izan zue hargatik. Harren edertasunak harren arima hondatu zue.

Lord Henryk aspaldi oparitu zion ispilua mahaian zego. Bere burua ikusteko hartu zue. Zer ote ze orai? Bihotzik gabeko aurpegia. Bat-batean bere edertasuna madarikatu eta ispilua lurrera egotzi zue: guzis hautsi ze.

Sibyl Vane, Basil Hallward, James Vane... haien heriotzea yadanik ez zekio axola. Hoberena ze iraganas ez oroitzea. Ezin zue iragana aldatu. Bere buruas pensatu behar zue. «Agian», pensatu zue, «zintzoago bizi barinbanaiz, erretratuak itxuskeria galduko du.» Nesako baserritar ederras oroitu ze: gutienes harren bizi gaztea ez zue hondatu. Hura, dudarik gabe, ekintza ona ze. Erretratua, benturas, gaiztakeria arrastoak galtzen hasirik egonen ze. Ikustera joanen ze.

Mahai gañeko lanpara hartu, eta eskalleretatik igan ze poliki. Atea irikitzean, irribarre alai batek argistatu zue harren aurpegi gaztea. Bai, ona izanen ze; eta ikaskanbra zaharrean ezkutatzen zuen gauza ikaragarri harrek ez zio berris beldurrik emanen. Sartu, eta beti bejala atea ertxi zue eta, oihal gorria kendurik, erretratua agirian utzi zue. Min eta sumindura oihu batek ixiltasuna urratu zue. Ez zue iolako aldatzerik ikusi, ez baze begietan orai maltzurkeria itxura hartzen zekiola iduriari. Erretratuak lehen bejain nazkagarri segitzen zue, lehen baño areago, eta eskuan zeukien kolore gorriak gorriago iduri zue, odol ixuri berriaren moduan.

Gorrotos eta beldurres begiratu zio bere erretratuari. Urte batzuk lehenago, anis gozatu zue hura aldatzen eta zahartzen ikusirik, baña, azken urteetan, harren errus gau

anisetan ezin zue lorik egin. Etxean egon ez zenean, bertze norbaitek ikusiko ote zuen beldurres egon ze beti. Kontzientzia moduko bat izan ze berarendako. Bai, bere kontzientzia izan ze. Baña suntsitu eginen zue.

Ingurura begiratu eta Basil Hallward sastatzeko erabili zuen ganibeta ikusi zue. Distiratsu zego. Margolaria hil zuen modu berean hillen zue orai harren lana eta harrek adierazten zuen guzia.

Behin iragana hilles geros, libre izanen ze. Arimaren iduri hura hillen zue, eta harren goartarazpenek bakea emanen ziote. Ganibeta hartu eta erretratua sastatu zue.

Oihu latza entzun ze, eta ondorean zaragata handia. Oihuak etxeko zerbitzariak idatzarri zitue, eta izuturik atra zire beren kanbretatik. Karrikan aurrera zihoaizen bi jaunek, kolpetik gelditurik, etxe handiaren goitiko solairura begiratu zute. Gero aitzina segitu zute polizia bat arkitu artio, eta harreki itzuli zire etxe ondora. Poliziak hanbat aldis jo zue txirrina, baña ez zue iork atea iriki. Goiko leihoetariko bateko argia kendurik, etxe osoa ilunpean zego. Pixka bat geroago joan ze, baña hurbil zegon atari batean gailtu ze begiratzalle.

–Norena da etxe hori, polizi jauna? –galdegin zue jaunetariko batek.

–Dorian Gray jaunarena –errespondatu zio gizonak.

Bi jaunek elkarri begiratu ziote eta, mespretxu zeñua egin ondorean, handik joan zire.

Etxe barruan, zerbitzarien alderdian, zerbitzariak, erdi jantzirik, agopean hitz egiten ari zire. Leaf andre zaharra

negarres ari ze eta eskuak bihurtzen zitue[172]. Francis hillak bejain zuri zego.

Azkenean zalgurdi-gidaria eta mutil zerbitzari bat konbentzitu ahal izan zitue berareki gora joateko. Atea jo zute, baña iork ez zue errespondatu. Gero, atea behartzen alperrik saiatu ondoan, tellatura igan eta handik balkonera jautxi zire. Leihoak erraz iriki zituzte, zaharrak eta herdoidurik zeudenes geros.

Sartu zirelarik, beren nausiaren erretratu ederra paretatik txintxilik arkitu zute, azken aldis ikusi zutenean zeukien itxura berareki, gaztetasun eta edertasun betean. Lurrean etzanik, gizon bat hillik zego, etiketa arropas jantzirik eta ganibeta bat bihotzean sarturik. Zimeldurik zego, zimurres beterik, eta harren aurpegia nazkagarria ze. Xarririk zeuzkien eraztunak ikusi zituzten arteo, ezin izan zute xakin gizon hura nor zen.

## Oharrak

1 alda dezakeen
2 harago; haraindi
3 arriskupean
4 langela
5 zuhaitzen
6 zutik
7 dudanik (= dut-enik)
8 anitzetan
9 bertan
10 ergelek, leloek
11 Horrela deritzo hari? (Hori da haren izena?)
12 biziki gustatzen
13 ahazten zaizu (atzendu = ahaztu)
14 ahotsa
15 zuzen
16 joan nintzela
17 egongelan
18 ohartu nintzen
19 izanen zela
20 berehala adiskidetu ginen
21 ulertzen
22 senideei
23 txiroari, behartsuari
24 zeu, zerori
25 zuzena ala okerra
26 anitz aldiz
27 ezingo nintzateke
28 ezagutuz gero
29 erakutsi dit
30 piztu zuen
31 kopeta
32 ez zaitez
33 aurkitu zuela erran zidan
34 ez nekien
35 itxaroten, zain
36 erakusten ziela
37 ikusi nahi dut (kale hizkeran)
38 zeundenik
39 ahaztu zitzaidan
40 ile
41 mesedez
42 geratuko
43 dioenari, erraten duenari. Izarbeibarren -oe- kontsonante taldea ia beti -o- egiten da.
44 gustatu zitzaion
45 alda dezakeela
46 arnasa hartu
47 sorbaldan
48 neskatila, neskatoa
49 eser gaitezen

50 egin zien

51 emakumeei

52 masailak

53 gertatu

54 natzaizu

55 malko

56 jaurti

57 ez zirudien gustatzen zitzaizunik

58 behintzat, bederen

59 zuek

60 ahatz dezagun

61 joango gara

62 ez zinetela

63 gehiago

64 biloba

65 ihes egin

66 aberastuko

67 jartzen zizkien

68 ez zitzaien

69 ez zenion

70 joanen zinela

71 iritsi, heldu

72 azkar, bizkor, zalu

73 itxi

74 entzunen du

75 erraten dute (kale hizkeran)

76 ('Hiru' eta 'hirur', Izarbeibarren biak dokumentaturik daude.)

77 desioa, irrika

78 hasieran

79 gosaltzen

80 iritziz

81 iluntzean

82 ematen dizkit. Garesko euskaraz dit eta digu adizkiek ez daukate pluralik; dio, dizu, dizue eta die adizkiek, ordea, bai.

83 eman dizkigu (Ikus 82. oharra)

84 jantzia

85 neba. Izarbeibarren ez dago 'neba' hitza.

86 kezkaturik

87 arriskuez

88 eskaileran gora

89 hara eta hona

90 bizkor, azkar, zalu

91 musukatu zuen

92 jaitsi

93 astindu, inarrosi

94 jangelan

95 musu eman genion

96 ahaztu zitzaizun

97 gerta zitezkeen

98 hauek

99 ageri zen

100 baizik eta

101 zuei

102 edanen dugu

103 ari nintzela (Ikus 16. oharra)

104 bultza egin

105 zabuka

106 estuki

107 egunsentian

108 ohe

109 erran zezakeen

110 hitz egiten zietela

111 galde eginez, galdezka

112 zintzurra, eztarria

113 erran zidaten

114 ahaideei

115 nintzela erraten zien

116 musu

117 ezingo

118 udazkenean

119 erran zenidan

120 erran zidan

121 ageriko

122 nahi zintudan (Ikus hiru perpaus lehenago, erlatiboan.)

123 nekez

124 oraingoz

125 hautsez

126 emadazu

127 haurtzaroan

128 garbi eta xahu, garbi-garbi

129 errukigabeak, gupidagabeak

130 zerk

131 asteazkenero

132 ilaren

133 goruan iruteko

134 zuziekin, zuzien bidez

135 lainotsuan

136 heldu gara

137 daramadan

138 zailagoa

139 ez dienean

140 zeneukan fedea

141 egin dezakezu

142 barre mingotsa

143 erantzun behar diezu

144 nork

145 xahu, garbi

146 pixkanaka-pixkanaka

147 eraman

148 etortzeagatik (Izarbeibarren -tzeagatik > -tzeargatik bilakaera dago. Biak erabiltzen dira.)

149 har ditzakezu

150 hatz, atzamar

151 ahamenik, mokadurik

152 irrikaz, tirriaz, gogo handiz

153 zuzenduko diegula

154 uki zitzakeela

155 ahul eta gaixo

156 arnasestu

157 euri

158 non aurki zezakeen

159 emadazu

160 ez zaituztete

161 belarrira

162 odoletan blai

163 ehizara

164 ehiztarien

165 ukuiluko

166 alkandora

167 pila

168 zapi

169 udaberria

170 irmoki, tinko

171 ez die

172 bihurritzen zituen